Hezkuntza-sistemari laguntzeko zerbitzu bakoitzeko Zuzendaritza eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Administrazio eta Dirubideen Zuzendaritza.

g) Sartzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurkakotzeko eskubidearen mende dauden zerbitzuak edo unitateak:

Hezkuntza-sistemari laguntzeko zerbitzu bakoitzeko Zuzendaritza eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Administrazio eta Dirubideen Zuzendaritza.

h) Segurtasun-neurriak, betiere eska daitekeen segurtasun-maila adierazita (oinarrizkoa, ertaina eta handia):

Oinarrizko segurtasun-maila.

Dirección de cada Servicio de Apoyo y Dirección de Administración y Gestión Económica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

g) Servicios o unidades ante los que pudiesen ejercitarse los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición:

Dirección de cada Servicio de Apoyo y Dirección de Administración y Gestión Económica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

h) Medidas de seguridad con indicación del nivel básico, medio o alto exigible:

Nivel básico.

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

**4680**

133/2008 DEKRETUA, uztailaren 8koa, nekazaritzarako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzkoa.

Landa-garapeneko politika, Nekazaritzako Politika Bateratuaren (NPB) bigarren zutabe bezala ezaguna, nekazaritzako produktu ezberdinen merkatuei babesa emateko politikaren lagungarri eta osagarri gisa sortu zen. Orain, NPBren lehenengo zutabea deiturikoaren laguntza zuzena da. Aitzitik, denborak aurrera egin ahala, geroz eta garrantzi handiagoa lortu du, une honetan berezko edukia, helburuak eta funtsak dituen politika izatera iritsi arte.

Eraldaketa horren lehenengo urratsa Kontseiluaren 1257/1999/EE Erregelamendua, landa-garapenerako laguntzei buruzkoa, eta aldarazpen- eta aplikazio-araudi ezberdinak martxan jartzea izan zen. Hura Nekazaritza Bideratu eta Bermatzeko Europako Funtsaren (NBBEF) konturakoa izen zen. Filosofia eta araudi berri hori EAEn bildu eta aplikatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Jasangarriko Plana 2000-2006 (LGJP) delakoaren bitartez. Araudi-mailan, uztailaren 28ko 166/2000 Dekretuak jaso eta aplikatu zuen. LGJPren aldarazpenak, halaber, 166/2000 Dekretua Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Ustiategietarako, Landa-eremuen Garapen eta Egokitzapenerako, eta Basogintzako Laguntzak arautzen dituen azaroaren 30eko 243/2004 Dekretuarengatik ordezkatzeko beharra ekarri zuen.

Berriki, bilakaera berria izan da lehen aipatutako ildotik, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGNEF) landa-garapenaren alde emandako laguntzari buruzko Kontseiluaren 2005eko irailaren

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

**4680**

DECRETO 133/2008, de 8 de julio, sobre ayudas estructurales y ambientales al sector agrario.

La política de desarrollo rural, conocida como segundo pilar de la Política Agrícola Común (PAC), nació como acompañamiento y complemento a la política de apoyo a los mercados de los diversos productos agrícolas, ahora ayudas directas, del denominado primer pilar de la PAC. Sin embargo con el paso del tiempo ha ido adquiriendo una creciente importancia hasta llegar a ser en estos momentos una política con sustantividad, objetivos y fondo propios.

El primer paso de esta transformación fue puesta en marcha por medio del Reglamento (CE) n.º 1257/1999, del Consejo, sobre ayudas al desarrollo rural a cargo del Fondo Europeo de Orientación y Garantía Agrícola (FEOGA) y los diversos reglamentos de modificación y de aplicación. Toda esa nueva filosofía y reglamentación fue recogida y aplicada en la CAPV por medio del Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2000-2006 (PDRS) y, a nivel normativo, por el Decreto 166/2000 de 28 de julio. La modificación del PDRS determinó a su vez la necesidad de sustituir el Decreto 166/2000 por el Decreto 243/2004, de 30 de noviembre, sobre ayudas a las Explotaciones Agrarias, al desarrollo y adaptación de las zonas rurales y a la silvicultura de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Recientemente se ha producido una nueva evolución en la línea antes apuntada por medio del Reglamento (CE) 1698/2005 del Consejo, de 20 de septiembre de 2005 relativo a la ayuda al desarrollo rural a través

20ko 1698 (EE) Erregelamenduari eta aplikatu beharreko xedapenak ezartzen dituen Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1974/2006 (EE) Erregelamenduari esker. Erregelamendu horien bidez, bultzada berria eman zaio landa-garapeneko politikari eta Erkidegoaren berariazko funtsa ezarri da hura finantzatzeko. Aitzitik, EBn kide berri asko sartzeak EAEri politika honetarako Batasunak emandako kopuruak gutxitzea ekarriko zuen.

Aurreko aldian bezala, araudiak abiarazi beharreko neurrien plangintza egin behar dela dio eta, ondorio horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko Plana (2007-2013) egin da. Honek aipatu plangintza biltzen du eta Europako Batzordearen berariazko onespena jaso behar du. Araudi berrian ardatzen araberako bereizketa egiten da (1. ardatza: nekazaritza eta basogintzako ekoizpena areagotzea; 2. ardatza: ingurumena eta landa-esparrua hobetzea; 3. ardatza: landa-esparruetako bizi-kalitatea eta landa-esparruko ekonomia aniztea, eta 4. ardatza: Leader ikuspegia).

Aurreko guztiak dekretu berria argitaratzeko beharra zehazten du, azaroaren 30eko 243/2004 Dekretuko I, II, III eta VI. kapituluak ordezkatzeko. Dekretu honetan araudi berria eta plangintza berria aplikatuko dira, nekazaritzako ustiategiekin zerikusi zuzenagoa duten lehenengo ardatzeko neurriak nahiz bigarren ardatzekoak (egiturazko eta ingurumeneko neurriak) bilduz. Basogintzarekin eta landa-esparruen garapenarekin zerikusi zuzenagoa duten neurriak sektore horietarako berariazko neurrietan arautuko dira.

Aurreko arauekin gertatzen zen bezala (uztailaren 28ko 166/2000 Dekretua eta azaroaren 30eko 243/2004 Dekretua), hemen jasotzen diren neurri gehienek Euskal Herriko Lurralde Historikoetako foru-aldundien eskumenekoak diren gaietan eragina dute. Horregatik, dekretu hau esparru-dekretua da eta beraren bidez, Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremu osoan oinarrizko kohesioa eta koordinazioa bermatze aldera laguntza-erregimen ezberdinetan foru-organoek kontuan hartu behar izango dituzten gutxieneko mugak eta baldintzak ezartzen dira. Hemen aurreikusitako beste laguntza-bide batzuk, ordea, erakunde komunen eskumenekoak dira eta, beraz, zuzenean dekretu honen bidez ezarriko dira.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru-aldundiei iritzia eskatu zaie dekretu hau egiteko garaian, bai eta lanbide-erakundeei eta sektoreko elkarteei ere.

Horrenbestez, kasuan kasuko derrigorrezko txostenak igorri eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuak proposaturik eta Gobernu Kontseiluak 2008ko uztailaren 8an egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

del Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER) y del Reglamento (CE) 1974/2006 de la Comisión, de 15 de diciembre de 2006, por el que se establecen las disposiciones de aplicación. Por medio de estos reglamentos se da un nuevo impulso a la política de desarrollo rural y se establece un fondo comunitario específico para su financiación. Sin embargo, por contra, la entrada de una gran cantidad de nuevos miembros en la UE va a suponer una disminución de las cantidades comunitarias destinadas a la CAPV para esta política.

Del mismo modo que en la etapa anterior, las medidas a poner en marcha han de ser objeto de planificación por mandato reglamentario y a estos efectos se ha elaborado el Plan de Desarrollo Rural del País Vasco 2007-2013, en el que se recoge dicha planificación y que ha de ser expresamente aprobado por la Comisión Europea. En la nueva reglamentación se efectúa una división de las medidas por ejes (Eje 1: aumento de la productividad del sector agrícola y forestal; eje 2: mejora del medio ambiente y del entorno rural; eje 3: calidad de vida en las zonas rurales y diversificación de la economía rural; y eje 4: enfoque Leader).

Todo lo anterior determina la necesidad de publicar un nuevo Decreto, en sustitución de los capítulos I, II, III, y VI del Decreto 243/2004 de 30 de noviembre. En este Decreto se aplica la nueva reglamentación y la nueva planificación y se recogen aquellas medidas, tanto del eje uno como del eje dos (medidas estructurales y ambientales) que tienen una relación más directa con las explotaciones agrarias. Las medidas que tiene una relación más directa con la silvicutura y con el desarrollo de zonas rurales serán objeto de regulación en normas específicas para dichos sectores.

Al igual de lo que ocurría con las anteriores normas (Decreto 166/2000 de 28 de julio y Decreto 243/2004, de 30 de noviembre) la mayor parte de las medidas aquí recogidas inciden en materias en las que son competentes las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos del País Vasco. Por ello, el presente es un Decreto Marco en el que se establecen los límites y condiciones mínimas de los diversos regímenes de ayuda que los Órganos Forales competentes habrán de tener en cuenta en orden a asegurar una cohesión y coordinación básica en todo el ámbito territorial de la Comunidad. Otras líneas de ayudas aquí previstas son, en cambio, competencia de las Instituciones Comunes y quedan directamente establecidas por medio de este Decreto.

Las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, así como las organizaciones profesionales y asociaciones sectoriales han sido consultadas en la elaboración del presente Decreto.

En su virtud, una vez emitidos los informes preceptivos correspondientes y de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 8 de julio de 2008,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

***1. artikulua.***– Xedea.

1.– Dekretu honen bidez, eta 1698/2005/EE Erregelamenduan xedatutakoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko Programarekin bat etorriz, nekazaritzako sektorean lehiakortasuna areagotzeko eta nekazaritza eta ingurumeneko neurriak hartzeko laguntzen esparru-arautegia ezarriko da Euskal Autonomia Erkidegoan.

2.– 1698/2005/EE Erregelamenduak eta esparru-arautegi honek ezarritako mugen barruan, lurralde historikoetako foru-aldundiek parte hartzen duten laguntzak ezarri eta garatuko dituzte.

3.– Laguntza horiek, beraz, zuzenean dekretu honen bidez ezarriko dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ere finantzatuko ditu. Dagozkien kudeaketa-, ebazpen- eta ordainketa-arauak III. kapituluko III. atalean jasotzen dira.

***2. artikulua.***– Laguntza-bideak.

Honakoak dira dekretu honetan jasotako laguntza-bideak:

a) Nekazaritzako ustiategiak modernizatzeko laguntzak.

b) Nekazari gazteek ustiategiak jartzeko laguntzak.

c) Nekazari gazteek ustiategiak jartzeko laguntza osagarria.

d) Nekazarien eta nekazaritzako langileen erretiro aurreraturako laguntzak.

f) Kudeaketa, ordezkapen eta aholkularitza zerbitzuak ezartzeko laguntzak.

g) Nekazariek eta basogintzako langileek aholkularitza-zerbitzuak erabiltzeko laguntzak.

h) Ur-baliabideak kudeatzeko laguntzak.

i) Azpiegiturak hobetu eta garatzeko laguntzak.

j) Mendietan zailtasun naturalak orekatzera zuzendutako laguntzak.

Mendikoak ez diren eremuetan zailtasun naturalak orekatzera zuzendutako laguntzak.

k) Nekazaritza eta ingurumeneko laguntzak.

***3. artikulua.***– Laguntzen finantzaketa.

1.– Aurreko artikuluko a), b), d), f), g), h), i), j) eta k) idatz-zatietan ezarritako laguntzetara bideratuko diren baliabide ekonomikoak Erkidegoaren LGENF funtsetik eta foru-aldundi bakoitzeko aurrekontuetan xede horretarako ezartzen diren kredituetatik aterako dira, Europako Batzordeak onetsitako Euskal Autonomia

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 1.***– Objeto.

1.– El presente Decreto tiene por objeto establecer, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la normativa marco de las ayudas para el aumento de la competitividad del sector agrario y para el establecimiento de medidas agroambientales, de conformidad con lo dispuesto en el Reglamento (CE) n.º 1698/2005 de 20 de septiembre y con el Programa de Desarrollo Rural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Dentro de los límites establecidos en el Reglamento (CE) n.º 1698/2005 y en el presente Decreto Marco, Las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos establecerán y desarrollarán las ayudas en cuya financiación participen.

3.– Las ayudas en cuya financiación participa la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y cuyas normas de gestión, resolución y pago vienen reguladas en la sección III del capítulo III quedan establecidas directamente por medio del presente Decreto.

***Artículo 2.***– Líneas de ayuda.

Las líneas de ayuda incluidas en el presente Decreto son las siguientes:

a) Ayudas a la modernización de las explotaciones agrícolas.

b) Ayudas a la instalación de jóvenes agricultores.

c) Ayuda complementaria a la instalación de jóvenes agricultores.

d) Ayudas a la jubilación anticipada de agricultores y trabajadores agrícolas.

f) Ayudas a la implantación de servicios de gestión, sustitución y asesoramiento.

g) Ayudas a la utilización de servicios de asesoramiento por parte de agricultores y silvicultores.

h) Ayudas a la gestión de recursos hídricos.

i) Ayudas a la mejora y desarrollo de las infraestructuras.

j) Ayudas destinadas a compensar las dificultades naturales en zonas de montaña.

Ayudas destinadas a compensar las dificultades naturales en zonas distintas de las de montaña.

k) Ayudas Agroambientales.

***Artículo 3.***– Financiación de las ayudas.

1.– Los recursos económicos destinados a las ayudas previstas en el apartado a), b), d), f), g), h), i), j) y k) del artículo anterior procederán del fondo comunitario FEADER y de los créditos presupuestarios de cada una de las Diputaciones Forales, de conformidad con los porcentajes de cofinanciación que figuren el Programa

Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Programan agertzen diren baterako finantzaketarako ehunekoekin bat etorriz.

2.– Halaber, foru-aldundiek finantzaketa osagarria jarri ahal izango dute aurreko artikuluko a), f), h), i), j) eta k) idatz-zatietan ezarritako laguntzetan baliabide ekonomikoak areagotze aldera.

3.– Aurreko artikuluko e) idatz-zatian ezarritako laguntzetara (hots, kudeaketa-, ordezkapen- eta aholkularitza-zerbitzuak ezartzeko laguntzetara) bideratuko diren baliabide ekonomikoak Erkidegoaren LGENF funtsetik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan xede horretarako ezartzen diren aurrekontu-kredituetatik aterako dira, Europako Batzordeak onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Programan agertzen diren baterako finantzaketarako ehunekoekin bat etorriz.

4.– Aurreko artikuluko c) idatz-zatian ezarritako laguntzara (hots, nekazari gazteek ustiategiak jartzeko laguntza osagarrira) bideratuko diren baliabide ekonomikoak oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan xede horretarako ezartzen diren aurrekontu-kredituetatik aterako dira.

5.– LGENFek laguntza hauetarako bideratzen duen kopurua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ordainduko du bere erakunde ordaintzailearen bitartez.

6.– Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretatik datozen laguntzei dagokienez, funts horietatik ekitaldi bakoitzean eman behar direnen guztizko zenbatekoak ezin du aurrekontuko diru-izendapena gainditu, ezta indarreko legeriaren arabera egindako aurrekontu-aldaketek dakarten diru-izendapen eguneratua ere.

***4. artikulua.***– Onuradunak.

1.– Lortu nahi den laguntza-bide bakoitzean zehaztutako betekizunak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradunak.

2.– Dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradun guztiek honako eskakizun hauek bete behar dituzte:

a) Nekazaritzako edozein laguntza ematean hartutako konpromisoak betetzea eta beteta izatea.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.

c) Laguntza itzultzeko prozeduran edo zehapen-prozeduran sarturik ez egotea. Hala bada, laguntza horiek onuradunei eman eta ordaindu ahal izateko, lehendabizi amaitu egin behar da euskal administrazio publikoek eta horien erakunde autonomoek emandakoa den izaera bereko beste edozein laguntza edo dirulaguntzaren

de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco aprobado por la Comisión Europea.

2.– Asimismo, las Diputaciones Forales podrán aportar financiación complementaria destinada a aumentar los recursos económicos para las ayudas previstas en los apartados a), f), h), i), j), y k) del artículo anterior.

3.– Los recursos económicos destinados a las ayudas previstas en los apartados e) del artículo anterior (ayudas a la implantación de servicios de gestión, sustitución y asesoramiento) procederán del fondo comunitario FEADER y de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales del País Vasco, de conformidad con los porcentajes de cofinanciación que figuren el Programa de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco aprobado por la Comisión Europea.

4.– Los recursos económicos destinados a la ayuda prevista en el apartado c) del artículo anterior (ayuda complementaria a la instalación de jóvenes agricultores) procederán íntegramente de los créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales del País Vasco.

5.– La parte de las ayudas procedente del FEADER será satisfecha por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco por medio de su Organismo Pagador.

6.– Por lo que respecta a las ayudas procedentes de los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el volumen total de los fondos a conceder dentro de cada ejercicio no excederá de la consignación presupuestaria o de la que resulte de su actualización en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias conforme a la legislación vigente.

***Artículo 4.***– Personas beneficiarias.

1.– Serán personas beneficiarias de las ayudas establecidas en el presente Decreto las personas físicas o jurídicas que cumplan los requisitos especificados en cada una de las líneas de ayuda de que se trate.

2.– Todas las personas beneficiarias de cualquiera de las ayudas previstas en este decreto deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Cumplir o haber cumplido los compromisos adquiridos con ocasión de la concesión de cualquier ayuda agraria.

b) Estar al corriente de sus obligaciones fiscales y de la Seguridad Social.

c) No encontrarse incursas en un procedimiento de reintegro o sancionador. En su caso, la concesión y el pago de estas ayudas a las personas beneficiarias quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la

esparruan hasi eta oraindik izapidean den itzultzeko prozedura edo zehapen-prozedura.

d) Sexu-arrazoiengatiko bereizkeria egin izanagatik administrazioaren nahiz zehapenen eremuan zigorra jaso ez izana eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen izenean debeku horrekin zehaturik ez egotea.

3.–Laguntza har dezaketenak nekazariak edo nekazaritzako ustiategiaren titularrak direnean, honako betekizunak bete behar izango dituzte:

a) Titulartzat pertsona fisiko bat edo bat baino gehiago duten familia-ustiategiak badira:

– Nekazaritzako ustiategi baten titularra edo titularkidea izatea.

– Nekazaritza-jardueraren arabera, Gizarte Segurantzan dagokion erregimenera kidetuta egotea.

– Laguntza-eskaera aurkezteko unean 18 urte beteta izatea edo oraindik 65 ez izatea.

b) Titulartzat pertsona juridikoa duten elkarte modura eratutako ustiategiei dagokienez, a) idatz-zatian aipatutako baldintzez gain, honako betekizun hauek ere bete behar dira:

– Kideetatik gutxienez % 50ek nekazaritzako familia-ustiategien titularrei aplikatzen zaizkien baldintzak betetzea.

– Pertsona juridiko horrek nagusiki nekazaritzan eta abeltzaintzan jardutea, lehentasunezko nekazaritza-ustiapenak zehazten dituen 168/1997 Dekretuko 6. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

c) Dekretu hau aplikatzeko, jaraunspen- edo ondasun-komunitate batekoak diren nekazaritzako ustiategiak elkarte modura eratutako ustiategi gisa hartuko dira.

4.– Gainera, ustiategiek ondorengo betekizunak bete behar dituzte:

a) Martxoaren 30eko 84/1993 Dekretuaren bidez sortu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan inskribatuta egotea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan kokatuta egotea; laguntza jaso dezaketen inbertsioak ere lurralde-eremu horretan bertan egingo dira.

5.– Lurralde historikoetako foru-aldundiek baldintza zorrotzagoak jarri ahal izango dizkiete ezarri eta finantzatzen dituzten laguntza-bide ezberdinen onuradunei. Halaber, laguntzen zenbatekoak modulatu ahal izango dira ustiategiaren titularrak nekazaritzan zein neurritan jarduten duen kontuan hartuta.

***5. artikulua.–*** Laguntzen baldintza orokorrak.

1.– Jarraian zehaztuko diren laguntzak eskuratu ahal izateko derrigorrezkoak izango dira ustiategi oso-

misma naturaleza concedidas por las Administraciones Públicas Vascas y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

d) No estar sancionadas administrativa ni penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo ni estar sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres.

3.– Cuando se establezca que las personas beneficiarias sean o puedan ser los «agricultores» o «titulares de la explotación agraria», estos deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) En el caso de explotaciones familiares cuyo titular sea una o varias persona físicas:

– Ser titular o cotitular de una explotación agraria.

– Estar afiliado al Régimen de la Seguridad Social que corresponda en función de la actividad agraria.

– Haber cumplido 18 años y no haber cumplido 65 en el momento de presentar la solicitud de ayuda.

b) En el caso de explotaciones asociativas cuyo titular sea una persona jurídica, además de las condiciones señaladas en el apartado a), ésta deberá cumplir los siguientes requisitos:

– Que al menos el 50% de sus miembros reúnan los requisitos exigidos a los titulares de explotaciones agrarias familiares.

– Que su actividad principal sea la agrícola ganadera de conformidad con lo establecido en el artículo 6 del Decreto 168/1997, de 8 de julio, sobre explotaciones agrarias prioritarias.

c) A los efectos de la aplicación del presente Decreto, las explotaciones agrarias que pertenezcan a una comunidad de bienes o hereditaria serán consideradas explotaciones asociativas.

4.– Además se deberán cumplir los siguientes requisitos en relación con las explotaciones:

a) Estar inscritas en el Registro de Explotaciones Agrarias del País Vasco creado mediante el Decreto 84/1993, de 30 de marzo.

b) Estar situadas en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco y las inversiones auxiliables deberán ser efectuadas en ese mismo ámbito territorial.

5.– Las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos podrán imponer requisitos más estrictos relativos a las personas beneficiarias de las diversas líneas de ayudas en las que participen en su financiación y que decidan establecer. Asimismo, los importes de las ayudas podrán ser modulados en función del grado de dedicación a la agricultura del titular de la explotación.

***Artículo 5.–*** Condiciones generales de las ayudas.

1.– Las buenas condiciones agrarias y medioambientales y los requisitos legales de gestión (condicionalidad)

an 1782/2003/EE Erregelamenduan eta urtarrilaren 25eko 20/2005 Dekretuan ezarritako nekazaritza eta ingurumeneko baldintza egokiak eta kudeaketako legebetekizunak (baldintzazkotasuna) betetzea:

a) Mendietan zailtasun naturalak orekatzera zuzendutako laguntzak.

b) Mendikoak ez diren eremuetan zailtasun naturalak orekatzera zuzendutako laguntzak.

c) Nekazaritza eta ingurumeneko laguntzak.

2.– Dekretu honetan ezarritako inbertsioen laguntzei dagokienez (nekazaritzako ustiategiak modernizatzeko laguntzak; kudeaketa-zerbitzuak ezartzeko laguntzak; ordezkapena eta aholkularitza; ur-baliabideak kudeatzeko laguntzak, eta azpiegiturak hobetu eta garatzeko laguntzak), hurrengoak izango dira diruz lagundu ahal izango diren gastuak:

– Higiezinak eraiki, eskuratu (finantza-errentamenduaren bidez eskuratzea barne) edo hobetzea;

– Makineria eta tresna berriak erostea edo alokatuerostea, ordenagailuarentzako euskarri logikoak barne, produktuak merkatuan duen baliora iritsi arte; ez dira diruz lagunduko erosteko errendamendu-kontratuekin zerikusia duten bestelako gastuak; hala nola, maizterraren marjina, interesak berriz finantzatzeko kostuak, gastu orokorrak eta aseguruaren gastuak;

– Gastu orokorrak, aurreko atalean aipatutako gastuei lotutakoak; hala nola, arkitektoen, ingeniarien eta aholkularien ordainsariak, bideragarritasun-ikerketak eta patente eta lizentziak eskuratzea.

Diruz lagundu ahal izango da bigarren eskuko tresnak erostea, baina soilik mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen kasuan, Batzordearen 2003/361/EE Gomendioan azaltzen den definizioaren arabera.

Ez dira diruz lagunduko:

– Ordezkapena besterik ez diren inbertsioak. Ez dira diruz lagunduko makineriaren eta tresneriaren mantentze-lanetarako eta horiek berritzeko inbertsioak. Birjarpen-inbertsiotzat hartuko da lehendik zeuden makina edo ekipoen ordez beste batzuk jartzeko egiten den inbertsioa, betiere, ez badakar hobekuntza edo berrikuntza teknologiko garbirik edo ordeztu beharreko makinak edo ekipoak erosi zirenetik 10 urte igaro baino lehen egin bada.

– Lurrak eskuratzea ordaindu daitezkeen gastuen guztirakoa % 10 baino gehiago bada;

– Interes zordunak, itzuli behar ez den zuzeneko laguntza denean.

BEZa, berreskuratu ezin daitekeen BEZa salbu eta esku-diruz edo behin betiko ordaindu badute Batzor-

establecidos en el Reglamento (CE) n.º 1782/2003, y en el Decreto 20/2005, de 25 de enero, serán obligatorios, en todo el conjunto de la explotación, para poder acceder a las siguientes ayudas:

a) Ayudas destinadas a compensar las dificultades naturales en zonas de montaña.

b) Ayudas destinadas a compensar las dificultades naturales en zonas distintas de las de montaña.

c) Ayudas agroambientales.

2.– Para las ayudas relativas a inversiones previstas en este Decreto (ayudas a la modernización de explotaciones agrarias; ayudas a la implantación de servicios de gestión, sustitución y asesoramiento; ayudas a la gestión de recursos hídricos y ayudas a la mejora y desarrollo de las infraestructuras) los gastos subvencionables se limitarán a:

– La construcción, adquisición, incluyendo la realizada a través de arrendamiento financiero, o mejora de inmuebles.

– La compra o arrendamiento-compra de maquinaria y equipo, incluidos los soportes lógicos de ordenador, hasta el valor de mercado del producto; no serán gastos subvencionables los demás costes relacionados con los contratos de arrendamiento con opción de compra tales como el margen del arrendador, los costes de refinanciación de los intereses, los gastos generales y los gastos de seguros.

– Los costes generales vinculados a los gastos de los dos apartados anteriores, tales como honorarios de arquitectos y arquitectas, ingenieros e ingenieras y asesores, estudios de viabilidad o adquisición de patentes y licencias.

Se podrá considerar subvencionable la compra de equipo de ocasión, exclusivamente el caso de microempresas, las pequeñas y las medianas empresas con arreglo a la definición que figura en la Recomendación 2003/361/CE de la Comisión.

No serán subvencionables:

– Las inversiones de simple sustitución. No se subvencionarán las inversiones de mantenimiento y las de reposición de maquinaria y equipos. Se considerará una inversión de reposición la que suponga la sustitución de una maquinaria o equipo existente por otro y no justifique claramente una mejora o innovación tecnológica o se realice en un plazo inferior a los 10 años desde la adquisición de la maquinaria o equipo a sustituir;

– La adquisición de terrenos por un importe superior al 10% del total de los gastos subvencionables de la operación de que se trate;

– Los intereses deudores, cuando se trate de una ayuda directa no reembolsable.

– El IVA, excepto el IVA no recuperable cuando sea costeado de forma efectiva y definitiva por personas be-

dearen 77/388/EE Seigarrengo Direktibaren, 1997ko maiatzaren 17koaren, 4. artikuluko 5. paragrafoaren lehenengo lerrokadan aipatutako subjektu pasiboak ez diren bestelako onuradunek.

Ezin da nekazaritzako inbertsioetarako dirulaguntzarik lortu nekazaritzarako eskubideak, animaliak eta urteko landareak erosteko eta horiek landatzeko. Hala ere, hondamendi naturalak direla eta, kaltetutako nekazaritza-ekoizpena birsortzeko bada, diruz lagundu ahal izango da animaliak erostea, 698/2005/EE Erregelamenduko 20. artikuluko b) idatz-zatiko vi) tartekiari jarraiki.

3.– Gauzaz egiten diren inbertsioak onartzen diren kasuan, 1974/2006/EE Erregelamenduko 54. artikuluan ezarritako moduan, hurrengoak hartu ahal izango dira diruz lagun daitezkeen gastu moduan: onuradun publiko edo pribatu batek egindako ekarpenak, adibidez ondasunak hornitzea edo zerbitzuak ematea, horiengatik kasuan kasuko fakturekin edo antzeko dokumentuekin ziurtaturiko diru-ordainketarik egiten ez bada eta, betiere, hurrengo baldintzak betetzen badira:

– ekarpenak izango dira lurrak, ondasun higiezinak, tresnak edo lehengaiak ematea, edo ikerketak egin edo profesionalen zerbitzuak ematea, edo ordaindu gabeko boluntario-lanak;

– ekarpenak ez dira izango 1974/2006/EE Erregelamenduko 50. artikuluak aipatzen dituen finantzazko ingeniaritzako eragiketak;

– ekarpenen balioa zenbatu eta banan-banan ikuskatu ahal izango da. Tasatzaile kualifikatu eta independente batek edo behar bezalako baimena duen erakunde ofizial batek egiaztatuko du emandako lur-sailen eta ondasun higiezinen balioa.

Ordaindu gabeko boluntario-lanak badira, balioa jarduera horretan emandako denboraren araberakoa izango da, eta ordu eta egun beretan egiten den lan berberaren truke ordaintzen dena izango da, aurretik ezarritako kalkulu-sistema estandar batek kalkulatzen badu balioa, eta betiere, kontrol-sistemak behar bezala bermatzen badu jarduerak egin direla.

Gauzez ordaindutako atalak dituen eragiketa batean, FEADERek batera finantzatutako gastu publikoa ezin da izan, eragiketa amaitzerakoan, diruz lagundu daitekeen guztirako gastua baino handiagoa, gauzez ordaindutakoa barne hartu gabe.

***6. artikulua.–*** Lanbide-prestakuntza eta trebakuntza.

1.– Lanbide-prestakuntza eta trebakuntza egokia izatea beharrezkoa denean, honakoetan aitortuko zaio titularrari lanbide-prestakuntza eta trebakuntza egokia dituela:

a) Nekazaritza-adarrean gutxienez bigarren mailako lanbide-heziketa edota erdi mailako nahiz goi-mailako heziketa-zikloren bat egin dutenak, lanbidean nahikoa

neficiarias distintos de las personas que no son sujetos pasivos a que se refiere el artículo 4, apartado 5, párrafo primero, de la Sexta Directiva 77/388/CE del Consejo, de 17 de mayo de 1997.

En el caso de las inversiones agrícolas, no podrá optar a ayudas a la inversión la compra de derechos de producción agrícola, animales y plantas anuales y su plantación. No obstante, al objeto de reconstituir el potencial de producción agrícola dañado por catástrofes naturales con arreglo al artículo 20, letra b), inciso vi), del Reglamento (CE) n.º 1698/2005, la compra de animales podrá considerarse subvencionable.

3.– En el caso de las medidas que comprendan inversiones en especie, tal y como se establece en el articulo 54 Reglamento (CE) n.º 1974/2006), podrán considerarse gastos subvencionables las contribuciones de un beneficiario público o privado, como el suministro de bienes o la prestación de servicios, por las que no se efectúen pagos en efectivo acreditados por las correspondientes facturas o documentos equivalentes, siempre que se cumplan las siguientes condiciones:

– las contribuciones consistirán en el suministro de terrenos, bienes inmuebles, bienes de equipo o materias primas, o en la prestación de servicios de investigación o profesionales, o de actividades voluntarias no remuneradas;

– las contribuciones no estarán vinculadas a las operaciones de ingeniería financiera a que se refiere el artículo 50 del Reglamento (CE) n.º 1974/2006;

– el valor de las contribuciones deberá poder calcularse y auditarse por separado. En el caso de la aportación de terrenos o bienes inmuebles, el valor será certificado por un tasador cualificado independiente o por un organismo oficial debidamente autorizado.

En el caso de las actividades voluntarias no remuneradas, su valor se determinará según el tiempo dedicado y la remuneración por hora y día abonada por actividades equivalentes, cuando proceda sobre la base de un sistema de cálculo de coste estándar previamente establecido, siempre que el sistema de control ofrezca garantías suficientes de que las actividades se han llevado a cabo.

En todos los casos, el gasto público cofinanciado por el FEADER destinado a una operación que incluya contribuciones en especie, no podrá ser superior al total de los gastos subvencionables, excluidas las contribuciones en especie, al final de la operación.

***Artículo 6.–*** Cualificación y capacitación profesional.

1.– Cuando se requiera poseer una cualificación y capacitación profesional adecuada, se entenderá que se está en posesión de dicha calificación y capacitación en los siguientes casos:

a) Los agricultores que hayan alcanzado títulos académicos en la rama agraria como mínimo de nivel de formación profesional de segundo grado o un ciclo for-

prestakuntza eta trebakuntza dutela uste izango da honako dekretuaren ondorioetarako.

b) Arau orokor gisa a) puntuan ezarritako baldintzak betetzen ez direnean, nahikoa izango da nekazaritzako jardueran bost urte baino gehiago egin dituela egiaztatzea.

2.– Nekazari gazteei dagokienez, aurreko atalean ezarritakoa betetzen ez badute, nekazaritzan bi urteko lanbide-esperientzia dutela egiaztatu behar dute edo nekazaritzarako prestatzeko ikastaro trinko bat egin izana, edo nekazaritza-adarreko etengabeko prestakuntzan gutxienez ehun eta berrogeita hamar (150) orduko ikastaroa egin izana. Nolanahi ere, ustiategia jarri ondoren 3 urteko epea eman ahal izango da beharrezko lanbide-prestakuntza eta trebakuntza eskuratzeko.

***7. artikulua.***– Laguntzen bateragarritasuna eta koherentzia.

1.– Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak elkarren artean bateragarriak izango dira, betiere, koherenteak badira eta laguntzen zenbatekoak, nola bakarka, hala beste laguntza batzuekin batera hartuta, ez badu gainditzen onuradunak garatu beharreko jarduerari edo laguntzaren xedeari dagokion kostua. Beste dirulaguntza batzuk lortzearen ondorioz muga hori gaindituz gero, dekretu honetan arautută dirulaguntzak emateko ebazpena aldatuko da.

2.– Halaber, beste laguntza-erregimen batzuei jarraiki Erkidegoan aplikatzen diren beste politika eta neurri batzuekin koherenteak izan behar dute eta Erkidegoko araudiak ezartzen dituen muga orokorrak nahiz sektorialak errespetatuko dituzte. Hori horrela, dekretu honen bidez ez da laguntzarik emango honako hauek finantzatzeko:

a) Merkatu Antolakunde Bateratuen esparruan emandako laguntza lor dezaketen programak eta neurriak, bi laguntzak bateragarriak direla beren beregi ezarri ezean.

b) Ekoizpena Merkatu Antolakunde Bateratuaren esparruan ekoizpenari edo Erkidegoko laguntzari ezartzen zaizkion mugen gainetik handitzea helburu duten inbertsioak, baita zuzeneko laguntza-erregimenak ere.

## II. KAPITULUA
## LAGUNTZA BIDEAK

***8. artikulua.***– Nekazaritzako ustiategiak modernizatzeko laguntzak.

1.– Neurri honekin honako helburu espezifiko hauek lortu nahi dira:

Ustiategietako ekoizpenak merkatu beharrei egokitzeko egiten diren inbertsioen alde egitea eta, bereziki, honako jarduera hauek lortzeko egiten diren inbertsioen alde: ekoizpenen kalitatea hobetzeko, elikagaien

mativo de grado medio o superior, se considerará que poseen una cualificación y capacitación profesional suficiente a los efectos del presente Decreto.

b) En el caso de no cumplir las condiciones establecidas en el punto a) con carácter general, será suficiente acreditar más de cinco años en la actividad agraria.

2.– En el caso de los jóvenes agricultores, si no cumplen lo establecido en el apartado anterior, deberán acreditar dos años de experiencia profesional en la agricultura o la asistencia a un curso intensivo de incorporación agraria o cursos de formación continua en la rama agraria de una duración mínima de ciento cincuenta (150) horas lectivas. En todo caso, se podrá conceder un periodo de 3 años después de la instalación para adquirir la necesaria cualificación y capacitación profesional.

***Artículo 7.***– Compatibilidad y coherencia de las ayudas.

1.– Las ayudas previstas en el presente Decreto serán compatibles entre sí siempre que sean coherentes y siempre que el importe de la ayudas, aisladamente o en concurrencia con otras, no supere el límite del coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario o de la finalidad para la que se concedió la ayuda. La superación de dicho límite por obtención concurrente de otras ayudas dará lugar a la modificación de la Resolución de concesión de las ayudas reguladas por el presente Decreto.

2.– Asimismo, deberán ser coherentes con otras políticas y medidas de la Comunidad aplicadas en virtud de otros regímenes de ayuda y se respetarán las limitaciones generales y sectoriales que la normativa comunitaria impone. A tal fin, no se concederá ninguna ayuda en virtud del presente Decreto para:

a) Programas y medidas que puedan optar a la ayuda prestada en el marco de las Organizaciones Comunes de Mercado, excepto en el caso de que dicha compatibilidad se establezca expresamente.

b) Las inversiones que estén destinadas a aumentar la producción por encima de restricciones de la producción o limitaciones de la ayuda comunitaria establecidas en virtud de una Organización Común de Mercado, regímenes de ayudas directas inclusive.

## CAPÍTULO II
## LÍNEAS DE AYUDAS

***Artículo 8.***– Ayuda a la modernización de las explotaciones agrarias.

1.– Los objetivos específicos que se persiguen con la puesta en marcha de esta medida son:

– Favorecer las inversiones orientadas a la adaptación de la producción de la explotación a las necesidades del mercado, en especial las inversiones que contribuyan a una mejora de la calidad de las producciones, a reforzar

segurtasuna eta ekoizpenen trazabilitatea indartzeko, ekoizpenak urtaroka mugatzeko, eta/edo ekoizpenak normalizatzeko eta aurkezteko.

– Ustiategien errentagarritasuna hobetzeko inbertsioen alde egitea, bereziki, honako jarduera hauek lortzeko inbertsioak: ekoizpen-gastuak murrizteko, energia-gastua murrizteko, IKTak erabiltzeko, produktibitatea handitzeko (kasuan kasu), ganadua genetikoki hobetzeko, eta/edo ekoizpenak, elikagaiei ez dagozkienak barne, dibertsifikatzeko.

– Ustiategi baten ekoizpen-gaitasuna handitzeko inbertsioen alde egitea, eta horrela, ustiategien etekin osoa hobetuko da; bereziki, lurretarako, makineriarako eta instalazioetarako inbertsioen alde egitea.

– Ingurumenaren iraunkortasuna hobetzeko inbertsioen alde egitea (bereziki, minden tratamendua hobetzea barne hartzen duten inbertsioak), bai eta laneko segurtasuna eta animalien higienea eta ongizatea hobetzeko inbertsioen alde ere.

– Alor hauek jorratzen dituzten Batasunaren arauak betetzeko inbertsioen alde egitea: ingurumena babestea, elikagaien segurtasuna, trazabilitatea, osasun publikoa, animalien eta landareen osasuna, animalien ongizatea eta laneko segurtasuna.

– Ustiategien enpresak hobeto kudeatzeko inbertsioen alde egitea.

– Energian kostuak gutxitzeko inbertsio berritzaileen alde egitea (energia berriztagarriak).

2.– Hauek izan daitezke laguntza hauen onuradunak:

– Nekazaritzako ustiategien titular nagusiak direnak laguntza eskatzen den unean, dekretu honetako 9 eta 10. artikuluetan adierazitako laguntzaren onuradun diren nekazari gazteak salbu, eta

– Ustiategiko etekin orokorra hobetzeko inbertsio materialak edo ez-materialak egiten dituztenak eta kasuan kasuko inbertsioei aplika dakizkien Batasuneko arauak betetzen dituztenak.

3.– Inbertsioak nekazaritzako ustiategietako errendimendu orokorra hobetzen badu, diruz lagunduko dira honako alor hauek hobetzen dituztela justifikatzen dituzten proiektuak:

– Ustiategien lehiakortasuna hobetzea: ustiategiaren errentagarritasuna zuzenean hobetzen dituzten inbertsioak, edo aipatu hobekuntza gerora egiteko aukera ematen duten inbertsioak, ekoizpenak merkatuaren beharretara egokituz edo balio erantsi handiagoko nekazaritza eta basogintzako ekoizpenak lortuz.

–Ustiategien kudeatzeko kalitatea hobetzea: ustiategia modu eraginkor, arin eta seguruagoan kudeatzea sustatzen duten inbertsioak, hala nola, informatikako sistemetarako eta programetarako inbertsioak, lan-se-

la seguridad alimentaria y la trazabilidad de las producciones, a limitar la estacionalidad de las producciones, y/o a la normalización y presentación de las producciones.

– Favorecer las inversiones orientadas a la mejora de la rentabilidad de las explotaciones, en especial las inversiones que contribuyan a la reducción de costes productivos, reducción del gasto energético, uso de TICs, incremento de productividades (en su caso), mejoras genéticas del ganado, y/o diversificación de producciones, incluidas las no alimentarias.

– Favorecer las inversiones orientadas a incrementar la capacidad productiva de una explotación que redunden en una mejora del rendimiento global de la explotación, en especial las inversiones en compras de tierras, maquinaria e instalaciones.

– Favorecer las inversiones orientadas a mejorar la sostenibilidad ambiental (en especial las que contemplen mejoras en el tratamiento de purines), la seguridad laboral y la higiene y bienestar de los animales.

– Favorecer las inversiones destinadas al cumplimiento de nuevas normas comunitarias en materia de la protección del medio ambiente, la seguridad alimentaria, la trazabilidad, la salud pública, la sanidad animal y la fitosanidad, el bienestar de los animales y la seguridad en el trabajo.

– Favorecer las inversiones orientadas a mejorar la gestión empresarial de la explotación.

– Favorecer las inversiones innovadoras para la reducción de costes energéticos (energías renovables).

2.– Podrán ser personas beneficiarias de estas ayudas quienes:

– Sean titulares de explotaciones agrarias a título principal en el momento de solicitar la ayuda, salvo en el caso de jóvenes agricultores que se beneficien de la ayuda prevista en los artículos 9 y 10 de este Decreto, y

– Efectúen inversiones materiales o inmateriales que mejoren el rendimiento global de la explotación y cumplan las normas comunitarias aplicables a las inversiones de que se trate.

3.– En el caso de que las inversiones se realicen con el fin de mejorar el rendimiento global de la explotación agrícola, serán subvencionables aquellos proyectos que justifiquen mejoras en alguno de los siguientes ámbitos:

– Mejora de la competitividad de la explotación: inversiones que supongan una mejora directa de la rentabilidad de la explotación, o que posibiliten dicha mejora a posteriori a través de una adaptación de la producción a las demandas del mercado o hacia producciones agrarias de mayor valor añadido.

– Mejora de la calidad de la gestión de la explotación: inversiones que promuevan una gestión más eficaz, ágil y segura de la explotación, tales como inversiones en sistemas y programas informáticos, equipamiento de

gurantzarako baliabideak, IKTak, eta aholkularitza-gastuak izateko inbertsioak, besteak beste; 13. artikuluan xedatutako aholkularitza-gastuak barne hartzen ez dituzten inbertsioak salbu.

– Ustiategien iraunkortasun ez ekonomikoa hobetzea: ekoizteko baldintzak hobetzeko inbertsioak, betiere, Batasuneko eskakizunetatik haratago, ingurumena, eta animalien higienea eta ongizatea babesteko badira.

Kasu guztietan, ustiategiaren errendimendua hobetu dela egiaztatu behar da, guztia justifikatzen duen memoria bat aurkeztuz edo, Administrazioak zehazten dituen kasuetan, ustiategiaren Hobekuntza Plan bat aurkeztuz, inbertsioa egin eta bost urtera.

4.– Inbertsioak Batasuneko arauak betetzeko egiten badira, Batasuneko arau berriak betetzera zuzendutako inbertsioek bakarrik jasoko dute laguntza. Kasu horretan, nekazariei graziazko epea eman ahal izango zaie adierazitako arauak betetzeko. Epea ez da 36 hilabetetik gorakoa izango arau horiek nekazaritzako ustiategietarako derrigorrezkoak diren unetik aurrera.

Nekazari gazteen instalaziorako laguntzen onuradun diren nekazari gazteen kasuan, jada existitzen diren Batasuneko arauak betetzeko egiten diren inbertsioak diruz lagundu ahal izango dira ere, baldin eta inbertsio horiek 9. artikuluak (nekazari gazteek ustiategiak jartzeko laguntzari buruzkoak) aipatutako enpresa-planean agertzen badira. Kasu horretan, aipatu arauak betetzeko graziazko aldia gehienez 36 hilabetetakoa izango da, araua indarrean jartzen den datatik aurrera.

Bi kasuetan, honako alor hauetako arauak bete behar dituzte: ingurumena babestea, elikagaien segurtasuna, trazabilitatea, osasun publikoa, animalien eta landareen osasuna, animalien higienea eta ongizatea eta laneko segurtasuna.

5.– Artikulu honetako 3. idatz-zatian adierazitako inbertsioei dagokienez, laguntzaren gehieneko kopurua (laguntzaren intentsitatea) diruz lagun daitekeen inbertsioaren balioaren % 50era bitartekoa izan daiteke, ustiategia mendian edo hondatutako zonaldean edo Natura 2000 zonaldean kokatzen bada. Gainerako kasuetan, intentsitate hori diruz lagun daitekeen inbertsioaren balioaren % 40ra bakarrik iritsiko da. Instalatzen diren nekazari gazteak inbertsioak egiten badituzte, eta gazte horien enpresa-planaren esparruan, dirulaguntza ehuneko 10 puntu gehitu ahal izango da mota guztietako guneetan.

Gehieneko horiek gainditu gabe, inbertsio jakin baterako ezartzen diren portzentajeei diruz lagun daitekeen inbertsioaren balioaren % 5a erantsi ahal izango zaie, lurralde historiko bakoitzean ezartzen diren irizpideak

seguridad laboral, TICs, gastos de consultorías, etc., excluyéndose los costes de asesoramiento contemplados en el artículo 13.

– Mejora de la sostenibilidad no económica de la explotación: inversiones que supongan mejoras en las condiciones de producción ligadas a la protección del medioambiente, la higiene y el bienestar animal, más allá de las exigencias comunitarias.

En todos los casos, dicha mejora en el rendimiento global de la explotación, deberá ser acreditada, bien a través de la presentación de una memoria justificativa de ello o, en los casos en que se determine por la Administración, a través de la presentación de un Plan de Mejora de la explotación a cinco años a partir del de puesta en marcha de la inversión.

4.– En el caso de que las inversiones se realicen a efectos del cumplimiento de las normas comunitarias, sólo se beneficiarán de la ayuda las inversiones destinadas al cumplimiento de nuevas normas comunitarias. En tal caso se podrá conceder a los agricultores un periodo de gracia para cumplir dichas normas que no podrá superar los 36 meses a partir de la fecha en que dichas normas pasen a ser obligatorias para la explotación agrícola.

En el caso de personas beneficiarias de la ayuda a la instalación de jóvenes agricultores, se podrá también, subvencionar las inversiones que se realicen para cumplir con normas comunitarias existentes, siempre y cuando dichas inversiones figuren en el plan empresarial a que se refiere el artículo 9 (Instalación de jóvenes agricultores). En este caso, el período de gracia máximo que se puede conceder para el cumplimiento de dichas normas no podrá ser superior a los 36 meses desde la fecha de su instalación.

En ambos casos tendrá que tratarse de normas referentes a alguno de los siguientes ámbitos: la protección del medio ambiente, la seguridad alimentaria, la trazabilidad, la salud pública, la sanidad animal y la fitosanidad, la higiene y el bienestar de los animales y la seguridad en el trabajo.

5.– Para las inversiones contempladas en apartado 3 de este artículo el importe máximo de ayuda (intensidad de la ayuda) podrá alcanzar hasta el 50% del valor de la inversión subvencionable si la explotación se encuentra en zona de montaña o desfavorecida, o en zona Natura 2000. En los demás casos, dicha intensidad sólo llegará hasta el 40% del valor de la inversión subvencionable. En el caso de inversiones efectuadas por jóvenes agricultores que se instalen, y en el marco de su plan empresarial, dicha intensidad podrá incrementarse en 10 puntos porcentuales en todas las zonas.

Sin superar estos máximos, los porcentajes que se establezcan para una determinada inversión, en función de los criterios que se fijen en cada Territorio Histórico, podrán tener un plus añadido de hasta un 5% del valor

gorabehera. Horretarako, ustiategiko titularrak nekazaritza eta ingurumeneko ustiapen-kontratua sinatu behar izango du.

6.– 4. idatz-zatian jasotako inbertsioen kasurako, laguntzaren intentsitateak ezin izango du, inola ere, diruz lagun daitekeen inbertsioaren balioaren % 20 gainditu.

7.– Lagun daitezkeen inbertsioei dagokienez, dekretu honetako 5. artikuluan adierazitako inbertsioei uztartutako baldintza orokorrak aplikatuko dira hurrengo berezitasunekin:

– Ez dira diruz lagunduko bigarren eskuko makinaria eta tresneria erosteko inbertsioak.

– Gauzez ordaindutako inbertsioen kasuan, diruz lagundu daitezkeen gauzak proiektua ezartzeko lanaren araberakoak izango dira, dekretu honetako 5.3 artikuluan adierazitakoari jarraiki.

– Ez dira diruz lagunduko makineriaren eta tresneriaren mantentze-lanetarako eta horiek berritzeko inbertsioak. Berritzeko inbertsioak izango dira dagoen makineria edo tresneria beste batez ordezkatzean eta ez denean justifikatzen argi eta garbi hobekuntza teknologikorik edo berritzailerik egon denik.

– Neurri honetatik ez dira nekazal turismoko inbertsioak babestuko, ezta, orokorrean, nekazaritzakoak ez diren aniztasunei zuzendurikoak (311 neurria). Halaber, ez dira diruz lagunduko basogintzako inbertsioak edota basoetarako makineriakoak. Salbuespena izango dira basoko landareen eta/edo landare apaingarrien haztegiak.

– Neurri honetatik ez dira babestuko norberaren ustiategia eraldatu eta merkatuan jartzeko inbertsioak.

8.– Merkatu Antolakunde Bateratuen esparruan laguntzak eskura ditzaketen programa eta neurriekiko bateragarritasunari dagokionez, 1698/2005/EE Erregelamenduko 5. artikuluko 6. idatz-zatian aurreikusitako salbuespena bakarrik aplikatuko da fruta eta barazkien sektorean. Irizpidea honakoa izango da: Fruta eta Barazkien Ekoizleen Elkarteren bateko (FBEE) kideren baten ustiapenetarako inbertsioak badira, inbertsio horiek FBEEk sustatu eta finantzatzen baditu eta FBEEko kide izateagatik ekarpen ekonomiko jakin batzuk jasotzen badira, inbertsio horiek ez ditu programa honek diruz lagunduko; fruta eta barazkien MABek finantzatu ahal izango ditu soilik.

Nekazari batek bakarka egindako inbertsioa bada, FBEE bateko kide, eta horiek nekazariak berak pentsatu, erabaki, finantzatu eta bideratu baditu, programa honen kontura bakarrik finantzatuko dira.

Ez dira barazki eta fruten MABren aplikazio-eremuan sartzen nekazaritzako ustiategietako titularrek egiten dituzten inbertsioak, horiek banakakoak edo taldekoak izan, FBEE bateko kide ez badira.

de la inversión subvencionable en el caso de que el titular de la explotación suscriba un contrato agroambiental de explotación.

6.– Para las inversiones contempladas en el apartado 4, la intensidad de la ayuda no podrá superar en ningún caso, el 20% del valor de la inversión subvencionable.

7.– Por lo que respecta a las inversiones auxiliables, se aplicarán las condiciones generales ligadas a las inversiones señaladas en el artículo 5 de este Decreto, con las siguientes particularidades:

– No se subvencionarán las inversiones en maquinaria y equipos de segunda mano.

– En el caso de inversiones en especie, la contribución en especie subvencionable se limitará al trabajo propio efectuado para implantar el proyecto, conforme a lo indicado en artículo 5.3 de este Decreto.

– No se subvencionarán las inversiones de mantenimiento y las de reposición de maquinaria y equipos. Se considerará una inversión de reposición la que suponga la sustitución de una maquinaria o equipo existente por otro y no justifique claramente una mejora o innovación tecnológica.

– No se apoyarán desde esta medida inversiones en agroturismo, ni en general las dirigidas a diversificación no agraria (medida 311); asimismo, no se subvencionarán las inversiones forestales/silvícolas, ni en maquinaria forestal, excepto en viveros de planta forestal y/u ornamental.

– No se apoyarán desde esta medida las inversiones para la transformación y comercialización desde la propia explotación.

8.– Por lo que respecta a la compatibilidad con programas y medidas que puedan optar a ayudas en el marco de las Organizaciones Comunes de Mercado, únicamente se aplicará la excepción previstas en el artículo 5 apartado 6, del Reglamento (CE) n.º 1698/2005 en el sector de las frutas y hortalizas con el siguiente criterio: en el caso de inversiones que afecten a explotaciones de miembros de una organización de productores de frutas y hortalizas (OPFHs), promovidas y financiadas con fondos de la misma, para las que exista una contribución económica específica de los miembros que se benefician de la acción, dichas inversiones no podrán percibir ayuda desde este Programa y solo podrán financiarse en el marco de la OCM de frutas y hortalizas.

Si son inversiones de carácter individual de un agricultor, miembro de una OPFH, que han sido concebidas, decididas, financiadas y llevadas a cabo por el propio agricultor, se financiarán exclusivamente a cargo de este Programa.

No entran en el ámbito de aplicación de la OCM hortofrutícola las inversiones que realicen los titulares de explotaciones agrarias, sea individual o colectivamente, cuando no sean miembros de una OPFH.

Laguntzak gainjartzen ez direla egiaztatzeko, FBEEk kide guztien zerrenda sartuko dute laguntzen eskaeran, bai neurri honetatik, bai fruta eta barazkien MABtik. Bateraezintasun hori ez gertatzeko arau eta irizpide administratiboak ezarri dira, eta horien kontrol gurutzatua EAEko Erakunde Ordaintzaileak egingo du.

9.– Laguntza emateko lehentasuna izango duten proiektuak izango dira nekazari gazte edo emakume diren ustiategietako titularrek aurkeztutakoak, eta artikulu honetako 1. idatz-zatian aurreikusitako neurrien berariazko helburuei lotutako lehentasunezko inbertsiotzat hartuko dira.

***9. artikulua.–*** Nekazari gazteek ustiategiak jartzeko laguntza.

1.– Nekazaritzako sektorean gazteak sartzea errazteko, nekazari gazteei lehenengo aldiz ustiategiak jartzeko laguntza osagarriak emango zaizkie; horretarako ustiategia jartzen duten unetik lehenengo 18 hilabeteen barruan eskabidea aurkeztu behar izango dute eta honako baldintzak bete:

a) 18 urte beteta izatea, baina 40 baino gutxiago izatea, ustiategia jartzen duten unean.

b) Lanbide-gaitasun egokia izatea, dekretu honetako 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Edonola ere, gehienez ere 36 hilabeteko epea eman ahal izango da laguntza ematen den egunetik aurrera, gazteak baldintza hori bete ahal izan dezan, betiere, enpresa-planak behar hori jasota badu.

c) Nekazaritzako jarduerak garatzeko enpresa jarduerarako plana aurkeztea. Enpresa-planean, gutxienez, alderdi hauek sartuko dira:

Nekazaritza edo basogintzako ustiategiaren hasierako egoeraren eta enpresa-proiektuaren deskribapena, ustiategi berriko jardueren garapenaren fase eta helburu zehatzekin.

Informazio zehatza inbertsioei, prestakuntzari eta aholkularitzari buruz, bai eta indarreko legedia errespetatuz ustiategian aurreikusitako jarduerak garatzeko beste edozein alderdiri buruz ere.

Oro har, proiektuaren bideragarritasuna frogatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio guztia. Enpresa-planak, planean aurreikusitako hirugarren jarduera-urtea bukatzean, NLUko 6 EDUko marjina gordina, gutxienez, aurreikusi behar du. Diru-sarrerak izateko hiru urte baino epe luzeagoa behar duten zur-laboreen kasuan, marjina betetzeko epea enpresa-planean ezarritakoa izango da.

Legeak ezartzen dituen ingurumen-betekizunak proiektuak nola beteko dituen azaltzen duen informazioa.

Para verificar que no haya solapamiento de ayudas, las OPFHs incluirán una lista de todos sus miembros en la solicitud de ayudas, tanto desde esta medida como desde la OCM de frutas y hortalizas. Las reglas administrativas y criterios para asegurar que no se dé esta incompatibilidad, serán los controles cruzados realizados por el Organismo Pagador de la CAPV.

9.– Serán proyectos prioritarios para la concesión de la ayuda los presentados por titulares de explotaciones que sean jóvenes agricultores o mujeres y se considerarán inversiones prioritarias las ligadas a los objetivos específicos de las medidas previstos en el apartado 1 de este artículo.

***Artículo 9.–*** Ayuda a la instalación de jóvenes agricultores.

1.– Para facilitar la incorporación de jóvenes en el sector agrario, se concederán ayudas a los jóvenes agricultores que se instalen por primera vez, que presenten una solicitud a estos efectos dentro de los 18 primeros meses de su instalación y que cumplan las condiciones siguientes:

a) Haber cumplido 18 años y tener menos de 40 años de edad en el momento de la instalación.

b) Poseer la capacidad y competencia profesionales adecuadas, según lo dispuesto en el artículo 6 de este Decreto.

No obstante, podrá concederse un plazo de 36 meses como máximo, a partir de la fecha de concesión de la ayuda, a fin de que el joven pueda cumplir esta condición, siempre y cuando el plan empresarial contemple tal necesidad.

c) Presentar un plan empresarial con vistas al desarrollo de sus actividades agrarias. El plan empresarial, incluirá los siguientes aspectos mínimos:

– Descripción de la situación inicial de la explotación agraria, y del proyecto empresarial a abordar, con indicación de las fases y objetivos concretos de desarrollo de las actividades de la nueva explotación.

– Información detallada sobre las inversiones, formación, asesoramiento o cualquier otra medida necesaria para desarrollar las actividades previstas en la explotación agraria conforme a la legislación vigente.

– En general, toda la información que se considere necesaria para demostrar la viabilidad del proyecto. El plan empresarial deberá prever como mínimo un margen bruto de 6 UDE/UTA al finalizar el tercer año de actividad previsto en el plan. En el caso de proyectos orientados a cultivos leñosos que requieran un plazo superior a tres años para la generación de ingresos, el plazo de cumplimiento del margen se adaptará a lo establecido en el plan empresarial.

– Información sobre cómo el proyecto cumplirá los requisitos ambientales legalmente establecidos.

Plana ebaluatu egingo da, dekretu honetako 27. artikuluan, laguntzak kudeatzeari buruzkoan, ezarritako prozedurarekin bat etorriz.

2.– Nekazari gazte batek lehenengo ustiategia jartzeak ustiategiko kudeaketaren eta ondasun eta eskubideen erantzukizun zibila eta fiskala onartzea ekarriko du. Honako modalitate hauen bidez egin ahal izango da:

a) Nekazaritzako ustiategiaren titulartasun esklusiboa, ustiategia erosi, jarauntsi, oinordetza-itunaren bidez eskuratu, dohaintza gisa onartu, errentan, partzuergoan edo indarreko legeekin bat datorren beste edozein eskualdaketa kontratu hartu duelako.

b) Nekazaritzako ustiategiko titularkide egitea, betiere, une berean hurrengo baldintzok betetzen badira:

– Titularrak eta nekazari gazteak kontzeptu hauek gutxienez sei urtez eta hein berean banatuko dituztela hitzartzea: gerentzia-erantzukizunak, ustiategiaren emaitza ekonomikoak, ustiategiaren kudeaketaren arriskuak eta egingo diren inbertsioak.

– Beste titularrak jabetzaren heren bat, gutxienez, nekazari gazteari transmititzea; hots, ustiategia osatzen duten elementuen herena, gutxienez, transmititzea. Zati horren erabilerak eta aprobetxamenduak ustiategian integraturik egoten jarraituko du.

– Finkatzen den nekazari gazteak Enpresa Planean makinen eta instalazioen erabilgarritasuna eta horiek ustiategiaren ekoizpenarekin bat datozela bermatzea.

c) Izaera juridikoko elkarte batean bazkide egitea. Elkarte hori lehendik sortutakoa edo sortu berria izan daiteke, eta nekazaritza ustiategi baten titulartasuna izan behar du. Hala gertatzen denean, ustiategia jartzen duen gazteak erakundearen kapitalean gutxienez partaidetza-maila bat eta erakundearen kudeaketaren arrisku eta erantzukizun zibil, fiskal eta sozialak bere gain hartu behar izango ditu; partaidetza-maila hori gutxienez beste kideena bezalakoa izango da.

3.– Nekazaritzako ustiategi batean lehenengo aldiz instalatzen den gazteak titular nagusia dela (gutxienez 0,5 NLU) egiaztatu behar izango du neurri honetan ezarritako proiektuaren azken ebaluazioaren aldia iritsi baino lehen (instalaziotik hiru urte). Edonola ere, ustiategiko titulartasuna denbora partzialean izatea ahalbidetuko zaie, landa-esparruan garatutako beste jarduera batzuekin bateratzen badu nekazaritzako jarduna.

4.– Lehenengo instalazioari emaniko laguntza, hartatik eratorritako gastuak eta inbertsioak laguntzera zuzendurikoa, prima bakar modura, interesetarako hobari modura edo bien konbinazio bezala eman ahal izango da. Bai prima bakarra, bai interesetarako hobaria ez da 40.000 euro baino gehiagokoa izango NLUko, onuradun bakoitzak gehienez NLU bakarra izanik. Bien konbinazioaren kasuan, laguntza ez da 55.000 euro

El plan será objeto de evaluación conforme al procedimiento previsto en el artículo 27 de este Decreto relativo a la gestión de esta ayuda.

2.– La primera instalación de un joven agricultor implicará la asunción de responsabilidad civil y fiscal de la gestión de la misma y del conjunto de bienes y derechos que la constituyen. Podrá realizarse mediante las siguientes modalidades:

a) Acceso a la titularidad exclusiva mediante compra, herencia, pacto sucesorio, donación, arrendamiento, aparcería, o cualquier otro contrato de transmisión de conformidad con la legislación vigente.

b) Acceso a la titularidad compartida de la explotación agraria siempre que se cumplan simultáneamente los siguientes requisitos:

– Que el otro titular y los jóvenes agricultores acuerden, con una duración mínima de seis años, que éstos compartirán las responsabilidades gerenciales, los resultados económicos de la explotación, los riesgos inherentes a su gestión y las inversiones que en ella se realicen, en al menos un 50%.

– Que el otro titular transmita a los jóvenes agricultores al menos un tercio de su propiedad en los elementos que integran su explotación, cuyo uso y aprovechamiento continuará integrado en la misma.

– Que los jóvenes agricultores que se instalen acrediten en el Plan de Empresa la disponibilidad de maquinaria e instalaciones acordes con la producción de la explotación.

c) Integración como socio en una entidad asociativa con personalidad jurídica, preexistente o de nueva constitución, que sea titular de una explotación agraria. En este caso, el joven que se instala debe asumir al menos un grado de participación en el capital, los riesgos y las responsabilidades civiles, fiscales y sociales de la gestión de la entidad que será como mínimo igual a la media del grado de participación del resto de los socios.

3.– El joven o la joven que se instale por primera vez en una explotación agraria deberá acreditar antes del periodo de evaluación final del proyecto previsto en esta medida (tres años desde la instalación) la titularidad a título principal (mínimo 0,5 UTAs) si bien se permitirá titularidad a tiempo parcial de la explotación en caso de que compatibilice la actividad agraria con otras actividades realizadas en el medio rural.

4.– La ayuda a la primera instalación, destinada a auxiliar gastos e inversiones derivadas de la misma, podrá concederse bajo la forma de una prima única, de bonificación de intereses o una combinación de ambas. Tanto la prima única como el valor capitalizado de la bonificación de intereses no podrá ser superior a 40.000 euros / UTA, para una UTA máxima por beneficiario. En el caso de una combinación de ambas, la ayuda no

baino gehiagokoa izango NLUko, onuradun bakoitzak gehienez NLU bakarra izanik.

5.– Laguntzaren zenbatekoa ezartzeko, honako irizpide eta haztapen hauetan oinarrituko da:

– Ustiategia jartzen den lursailaren orografia: gehienez 22 puntu (batez besteko malda handiagoa izanez gero, puntuazio handiagoa).

– Proiektuak eskatzen duen inbertsio bolumena: gehienez 22 puntu (inbertsioa handiagoa izanez gero, puntuazio handiagoa).

– Proiektua egingo den gunearen isolatze edo deslandatze maila: gehienez 22 puntu (isolatzea edo deslandatzea handiagoa izanez gero, puntuazio handiagoa).

– Proiektuaren elkartegintza maila: gehienez 17 puntu (elkartegintza maila handiagoa izanez gero, puntu gehiago; atal honetan gehienezko puntuazioa izango da erkidegoan ustiatzeko kooperatiba edo formulentzat).

– Nekazaritza eta ingurumeneko kontratua sinatzea edo kalitate bereizgarriak edo jatorri deiturak dituzten produktuak ekoiztea: gehienez 17 puntu (puntu osagarriak emango dira nekazaritza eta ingurumeneko kontratuak sinatu edo kalitate bereizgarrietara edo jatorri deituretara atxikita egoteagatik).

***10. artikulua.***– Nekazari gazteek ustiategiak jartzeko laguntza nazional osagarria.

1.– Aurreko artikuluan jasotako laguntzaz gain, Estatuko laguntza osagarria eman ahal izango zaie nekazari gazteei, artikulu horretan zehaztutako betekizun, irizpide eta prozedurei jarraiki.

2.– Laguntza osagarri horren gehienezko zenbatekoa ULUko 25.000 eurokoa izan ahal izango da, baldin eta aurreko artikuluan ezarritako laguntzarekin batera ULUko 55.000 euro gainditzen ez badira, onuradun bakoitzeko gutxienez 1 ULU. izanik.

***11. artikulua.***– Nekazarien erretiro aurreratua.

1.– Nekazaritzako jarduera bertan behera utzi nahi duten nekazariei lagapena errazteko, nekazaritzako ustiategietako lurren mugikortasunaren alde egiteko eta sektorea gaztetzera zuzendutako neurriak osatzeko asmoz, nekazaritzako ustiategietako titularrak nekazaritzako jarduna behar baino lehen uzteagatiko laguntzen onuradun izan ahal dira, pertsona fisikoak edo pertsona juridiko baten bazkide izan alde batera utzita.

2.– Laguntza horren onuradun izan ahal izateko, nekazaritzako ustiategietako titularrak (lagatzaileak) hurrengo betekizunak bete behar ditu:

a) Lagapena egiteko unean, 55 urte baino gutxiago ez izatea eta oraindik erretiratzeko adina bete ez izatea.

b) Nekazaritzako jardueran nekazari profesional gisa jardun izatea, ustiategia laga aurreko hamar urteetan

podrá ser superior a 55.000 euros / UTA, para una UTA máxima por beneficiario.

5.– Para la cuantificación de la ayuda se atenderá a los criterios y ponderación siguientes:

– Orografía del terreno donde se asiente la explotación: hasta 22 puntos (a mayor pendiente media, mayor puntuación).

– Volumen de la inversión requerida por el proyecto: hasta 22 puntos (a mayor inversión, mayor puntuación).

– Grado de aislamiento o despoblamiento de la zona donde se ubique el proyecto: hasta 22 puntos (a mayor aislamiento o despoblamiento mayor puntuación).

– Grado de asociacionismo del proyecto: hasta 17 puntos (a mayor grado de asociacionismo requerido, mayor puntuación, con máxima puntuación en este apartado para cooperativas o fórmulas de explotación comunitaria).

– Suscripción de contrato agroambiental o producción bajo distintivos de calidad o denominaciones de origen: hasta 17 puntos (puntuación adicional por la suscrición de contratos agroambientales o por estar adheridos a distintivos de calidad o denominaciones de origen).

***Artículo 10.***– Ayuda nacional complementaria a la instalación de jóvenes agricultores.

1.– Además de la ayuda prevista en el artículo anterior, se podrá conceder una ayuda estatal complementaria a los jóvenes agricultores conforme a los mismos requisitos, criterios y procedimientos previstos en dicho artículo.

2.– El importe máximo de esta ayuda adicional podrá llegar a los 25.000 euros / UTA, siempre que conjuntamente con la ayuda prevista en el artículo anterior no se sobrepasen los 55.000 euros / UTA, para 1 UTA máxima por beneficiario.

***Artículo 11.***– Cese anticipado de la actividad agraria.

1.– Con la finalidad de facilitar el cese de aquellos agricultores que deseen abandonar la actividad agraria, de favorecer la movilidad de tierras de las explotaciones agrarias y de complementar las medidas orientadas a fomentar el rejuvenecimiento del sector, podrán ser personas beneficiarias de las ayudas al cese anticipado de la actividad agraria los titulares de explotaciones agrarias bien sean personas físicas o bien socios de una persona jurídica.

2.– Para poder ser beneficiario de esta ayuda, los titulares de explotaciones agrícolas (cesionistas) deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) No tener menos de 55 años y no tener aún la edad de la jubilación en el momento de la cesión.

b) Haber ejercido la actividad agraria como agricultor profesional, según la definición establecida en la

(nekazari profesionalaren definizioa 13/1995 Legean, nekazaritza modernizatzeari buruzkoan, eta uztailaren 8ko 168/1997 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan lehentasuna duten nekazaritzako ustiapenak arautzekoan, jasotzen da).

c) EAEko Ustiategien Erregistroan behar bezala inskribatutako nekazaritzako ustiategi bateko titular edo titularkide izatea; alta-egoeran egotea Gizarte Segurantzaren nekazaritzako erregimen berezian, bere nekazaritzako jardueraren arabera; halaber, kotizazioak ordainduta eta zerga-betebeharrak beteta izatea.

d) Nekazaritzako jardun oro edo merkataritza-xedea duen eta nekazaritzarekin zerikusia duen jarduera oro behin betiko uztea, eta, gutxienez, 10 urteko epez ustiategiko azalera osoa nekazari gazte bati edo lurzoruaren fondoa kudeatzeko ardura duen erakunde bati lagatzea. Azken erakunde horrek hartzaile bati esleituko dizkio ondoren, jarraian datorren idatz-zatian ezarritako baldintzak betez gero.

Ustiategi intentsiboei dagokienez, ustiategiko elementu guztiak eskualdatuko dira. Nolanahi ere, eskualdatu beharreko gutxieneko azalera 4 hektareakoa izango da NAEtik, eta eremu horri edo ustiategi intentsiboari egotzi dakiokeen marjina gordina 4 EDUkoa izango da gutxienez.

Horretarako, lagatzaileari dagozkion ustiategiaren lurrak edo ustiategi intentsiboko elementuak ez dira % 20 baino gehiago murriztuko eskualdatzea egin aurreko hiru urteetan, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasua gertatu ezean.

e) Era berean, onuradunak ekoizpen-kuotak, erreferentzia-kopuruak, sarien gaineko kuotak eta ustiategiari dagozkion gainerako eskubide eskualdagarriak eta administrazio-emakidak utzi behar dizkio lagapen-hartzaileari edo aurreko idatz-zatian ezarritako erakundeari, betiere, emakida egin duen pertsonarekin bat etorrita.

f) Nekazaritzako jardueran erretiro aurreratua hartzen duena pertsona juridiko baten bazkidea bada, horrek aurreko epigrafeetan dauden betekizun subjektiboak beteko ditu eta lagatzen duen partaidetzak gutxienez d) letrako betekizunak.

3.– Laguntza hauek eskuratzeko, lurren jabe egiten diren lagapen-hartzaileek, nola pertsona fisikoak hala juridikoak izan, dekretu honetako 4. artikuluan ezarritako baldintzez gain, honako baldintza hauek ere bete behar dituzte:

a) Lagatzailearen ondorengoa izatea, nekazaritzako ustiategiaren titular legez, edo bere pentzura hartzea libre geratzen den lur osoa edo lur horren zati bat.

b) 40 urte baino gutxiago izatea.

c) Lanbide-gaitasun egokia izatea, dekretu honetako 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ley 13/1995 de modernización de la agricultura y en el Decreto 168/1997, de 8 de julio, por el que se regulan las Explotaciones Agrarias Prioritarias en la Comunidad Autónoma del País Vasco, durante los diez años anteriores a la cesión.

c) Ser titular o cotitular de una explotación agraria debidamente inscrita en el Registro de Explotaciones de la CAPV, estar en situación de alta en el régimen de la Seguridad Social que corresponda en función de su actividad agraria y hallarse al corriente del pago de las cotizaciones, así como del cumplimiento de sus obligaciones fiscales.

d) Abandonar definitivamente toda actividad agraria o actividad relacionada con la agricultura con fines comerciales y transmitir, por un periodo mínimo de 10 años, toda la superficie de su explotación a un joven agricultor o a un organismo encargado de gestionar un fondo de suelo agrario y las asigne de nuevo con posterioridad a cesionarios que reúnan las condiciones establecidas en el apartado siguiente.

En caso de explotaciones intensivas, se deberá transmitir todos los elementos de la explotación. En todo caso, la superficie mínima a transmitir será de 4 hectáreas de SAU y el margen bruto imputable a dicha superficie o explotación intensiva, en su caso, será de, al menos, 4 UDES.

A estos efectos, la superficie de la explotación o los elementos de la explotación intensiva, en su caso, del transmitente no deberá haber sido disminuida en más de un 20% en los tres años inmediatamente anteriores a la transmisión, salvo caso de fuerza mayor debidamente justificada.

e) Asimismo, el beneficiario deberá ceder al cesionario o al organismo previsto en el apartado anterior los derechos transmisibles sobre cuotas de producción, cantidades de referencia, cupos sobre primas y demás derechos similares que correspondan a la explotación, así como las concesiones administrativas que le afecten, de acuerdo con el cesionista.

f) En el caso de cese anticipado en la actividad agraria de un socio de una persona jurídica, éste deberá cumplir los requisitos subjetivos exigidos en los epígrafes anteriores y su participación a ceder deberá cumplir como mínimo los requisitos exigidos en la letra d).

3.– Para poder acceder a estas ayudas, los cesionarios a los que se transmitan las tierras, que podrán ser personas físicas o jurídicas que cumplan los requisitos establecidos en el artículo 4 de este Decreto, deberán cumplir asimismo las siguientes condiciones:

a) Suceder al cesionista como titular de la explotación agraria o tomar a su cargo la totalidad o una parte de las tierras que queden libres.

b) Tener menos de de 40 años de edad.

c) Poseer la cualificación y capacitación profesional adecuada, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 6 de este Decreto.

Pertsona juridikoei dagokienez, bazkide guztiek bete behar dute baldintza hori. Hala ere, foru-organo eskudunek salbuespenak ezarri ahal izango dituzte, kasu bakoitzaren inguruabarrak eta nekazaritzako sektorearen berezitasunak kontuan hartuta.

a) Lagako zaion ustiategian gutxienez 10 urtean jarduera nagusia nekazaritza izango dela hitzematea.

b) Alta-egoeran egotea Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean, bere nekazaritzako jardueraren arabera; halaber, kotizazioak ordainduta eta zerga-betebeharrak beteta izatea.

c) Lagatzen zaion ustiategia EAEn ofizialki ezarritako erregistroetan inskribatzea.

d) Lagatzailearen ezkontidea ezin izango da lagapen-hartzailea izan.

4.– Lurren lagapena honako negozio juridiko hauen bidez egingo da:

a) Jabetza salerosketa bidez edo dohaintzan emanez eskualdatzea, eskritura publikoa eginez. Irabazpidezko ondasunen eskualdaketa bada, eskualdaketaren eskritura publikoa ezkontide biek egingo dute.

b) Errentamendua bada, landa-errentamenduen legean xedatutakoarekin bat etorriz egingo da eta lagapen-hartzaileak gutxienez 10 urte emango ditu bertan.

c) Gozamenaren eskualdaketa a) idatz-zatian azaldu den erara egingo da, eta gutxieneko indarraldi klausula jasoko du, lagapen-hartzaileak Gizarte Segurantzaren edozein erregimenen bidez erretiro-pentsioa lortzeko eskubidea eduki arte.

Aurreko idatz-zatian ezarritakoa gorabehera, eta gainerako baldintzak betetzeari kalterik egin gabe, lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen artean lehen graduko ahaidetasuna badago, erretiroa hartzen duen nekazariari dagokion ustiategiaren NAE eskritura publikoan formalizatuko den behin betiko eskualdaketa errealaren bidez laga behar dela ezar dezakete foru-organo eskudunek.

Edonola ere, 1. idatz-zatiko negozio juridikoak gauzatzeko erabiltzen diren kontratuetan jasota geratuko da horiek eteteko arrazoia izango dela lagapen-hartzaileak 3. idatz-zatian finkatutako betekizunak ez betetzea. Lagapen-hartzaileak bere gain hartutako kontratuak bete gabe uzten baditu, 22. artikuluan (ez-betetzeak) finkatutakoari kalterik egin gabe, kontratu horiek eteteko ekintzak aurrera eramango dituela aginduko du lagatzaile onuradunak, eskabidea aurkezteko unean.

Lagatzaileak aukera izango du laguntza eskuratzeko, lurrak errentan hartuta badauzka ere, edo lurrak jabetza ez den beste edukitze-modu batean badauzka ere.

En el caso de las personas jurídicas, todos los miembros deberán cumplir este requisito. No obstante, los órganos forales competentes podrán establecer excepciones, atendiendo a las circunstancias concretas de cada caso y a las particularidades del sector agrario.

a) Comprometerse a ejercer la actividad agraria a título principal en la explotación resultante de la cesión durante, al menos, 10 años.

b) Estar en situación de alta en el régimen de la Seguridad Social que corresponda en función de su actividad agraria y hallarse al corriente del pago de las cotizaciones, así como del cumplimiento de sus obligaciones fiscales.

c) Inscribir la explotación resultante en los registros oficialmente establecidos en la CAPV.

d) En ningún caso podrá ser cesionario el cónyuge del cesionista.

4.– La cesión de la superficie deberá realizarse mediante la formalización de alguno de los siguientes negocios jurídicos:

a) Transmisión de la propiedad mediante compraventa o donación, que será elevada a escritura pública. En el caso de transmisión de bienes gananciales, la escritura pública de transmisión será realizada por ambos cónyuges.

b) Arrendamiento de conformidad con lo dispuesto en la Ley de Arrendamientos Rústicos, con una permanencia real del mismo durante, al menos, 10 años.

c) Transmisión del usufructo en la forma indicada en el apartado a), con cláusula de vigencia mínima hasta que el cesionario cause derecho a la obtención de una pensión de jubilación por cualquier régimen de la Seguridad Social.

No obstante lo establecido en el apartado anterior, y sin perjuicio del cumplimiento del resto de sus requisitos, en el supuesto de que entre el cesionista y cesionario exista un vínculo de parentesco en primer grado, los Órganos Forales competentes podrán establecer que la SAU de la explotación que fuera propiedad del titular que cesa en la actividad agraria tenga que cederse mediante su transmisión, de forma real y definitiva, formalizada en escritura pública.

En cualquier caso, en los documentos contractuales en que se formalicen los negocios jurídicos a que se refiere el apartado 1 se incluirá como causa resolutoria de los mismos el incumplimiento por el cesionario de los requisitos establecidos en apartado 3. El cesionista beneficiario se comprometerá en el momento de presentar la solicitud a ejercitar la acción resolutoria de dichos negocios jurídicos en el supuesto de incumplimiento por el cesionario de los contratos asumidos, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 22 (incumplimientos).

Si el cesionista tuviese tierras en arrendamiento, o en otras formas de tenencia distintas a la propiedad, podrá beneficiarse de esta ayuda, una vez liquidado el contra-

Horretarako, jabearekin kontratua likidatu ondoren, jabeak konpromisoa hartu behar du lur horiek saltzeko edo sei hilabeteko epean eskatutako baldintzak betetzen dituen lagapen-hartzaile bati errentan emateko, edo jabeak lurrak erabiltzeko konpromisoa hartu behar du, betiere, lagapen-hartzaileak bete beharreko baldintzak betetzen baditu.

5.– Hona hemen zertan datzan erretiro aurreratua hartzen duten nekazarientzako laguntza:

a) Kopuru finkoa duen urteko kalte-ordaina, gehienez 12.000 eurokoa urteko, honako baldintzak dituzten nekazaritzako ustiategien jabeei: Euskal Autonomia Erkidegoan egon behar dute, ustiategi intentsiboak edo lurrak izan behar dituzte eta erretiratzeko adina baino lehen bere jarduerari behin betiko utzi behar diote.

b) Aurreko idatz-zatian aipatutako onuradunentzako urteko kalte-ordain osagarria, gehienez ere 6.000 eurokoa urteko; horren zenbatekoa lagatako lur edo ustiategi intentsiboen marjina gordinaren araberakoa izango da.

Ustiategi bat hainbat lagatzailek eskualdatzen badu, ustiategi osorako emandako laguntza orokorraren kopuru orokorrak ezin izango du lagatzaile baterako aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa gainditu (18.000 euro). Kasu horretan, laguntzaren zenbatekoa eskualdatzen duen titular bakoitzari dagokion portzentajearen arabera hainbanatuko da.

Behar baino lehen lagatzeari emandako laguntza 10 urtez luzatuko da gehienez ere ematen denetik, eta, edonola ere, onuradunak 70 urte betetzean edo Gizarte Segurantzaren erretiro-pentsioa jasotzen hastean amaituko da.

Lagatzaileak Gizarte Segurantzatik pentsioa jasoko balu erretiratzeko ohiko adina bete baino lehen, laguntzaren zenbatekoa pentsio horri dagokion zenbatekoaren arabera murriztuko da, ardurapeko seme-alaba bakoitzeko familiako prestazioa edo alarguntzako pentsioa jasotzen denean izan ezik, horiek bateragarriak baitira aipatu laguntzekin.

6.– Espediente batean lagatzailea emakumea bada, lehentasuna izango da laguntza hartzerakoan.

***12. artikulua.***– Kudeaketa-, ordezkapen- eta aholkularitza zerbitzuak ezartzeko laguntza.

1.– Nekazari eta basozainei beren ustiategiak egokitzen, hobetzen eta kudeatzen laguntzeko xedez, eta horien etekin globala handitzen laguntzeko xedez, EAEko nekazaritza eta basogintzako ustiategietarako kudeaketa-, ordezkapen- eta aholkularitza-zerbitzuak ezartzeko edo egokitzeko laguntzak emango dira.

2.– Laguntzaren onuradun izan daitezke EAEko nekazaritzako ustiategiei aholkularitza-zerbitzuak ematen dizkieten erakunde pribatu aintzatetsiak eta basogintzako ustiategien aholkularitzarako basozainen elkarteak edo haiek osaturiko sozietate instrumentalak. Aipatu

to con el propietario, si tiene el compromiso de éste, bien de vender las tierras o arrendarlas en el plazo de seis meses a un cesionario que cumpla las condiciones exigidas, o bien de utilizarlas él mismo si cumple dichas condiciones como cesionario.

5.– La ayuda al cese anticipado consistirá en:

a) Una indemnización anual de cuantía fija a los titulares de explotaciones agrarias sitas en la Comunidad Autónoma del País Vasco poseedores de tierras o de explotaciones intensivas que cesen definitivamente en su actividad antes de la edad de su jubilación por un importe máximo de 12.000 euros por año.

b) Una indemnización anual complementaria a las personas beneficiarias previstos en el apartado anterior, de cuantía variable en función del margen bruto de las tierras o explotaciones intensivas cedidas por un importe máximo de 6.000 euros / año.

En caso de que una explotación sea transferida por varios cesionistas, el importe global de la ayuda global para toda la explotación no podrá superar el importe previsto en párrafo anterior para un cesionista (18.000 euros). En tal caso el importe de la ayuda se prorrateará en proporción al porcentaje que corresponda entre cada uno de los titulares transmitentes.

La ayuda al cese anticipado se prolongará como máximo 10 años desde que sea concedida y cesará en todo caso cuando el beneficiario cumpla 70 años de edad o comience a percibir una pensión de jubilación de la Seguridad Social.

En el caso de que el cesionista percibiera una pensión del sistema de seguridad social antes de la edad normal de jubilación importe de la ayuda a percibir se minorará en la cuantía de la pensión percibida, excepto en el caso de las prestaciones familiares por hijo a cargo y por pensión de viudedad, que serán compatibles con las citadas ayudas.

6.– Los expedientes en que el cesionario sea mujer tendrán carácter prioritario en la concesión de la ayuda.

***Artículo 12.***– Ayuda a la implantación de servicios de gestión, sustitución y asesoramiento.

1.– Con el objetivo de facilitar a los agricultores y silvicultores la adaptación, mejora y gestión de sus explotaciones, y de contribuir a aumentar el rendimiento global de las mismas, se concederán ayudas a la implantación o adecuación de servicios de gestión, sustitución y asesoramiento a las explotaciones agrarias y forestales en la CAPV.

2.– Podrán ser personas beneficiarias de la ayuda las entidades privadas reconocidas que presten servicios de asesoramiento a las explotaciones agrarias de la CAPV, así como las asociaciones de forestalistas, o las sociedades instrumentales enteramente participadas por ellas,

erakundeek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

– Nekazaritzako ustiategien aholkularitzarako erakunde pribatuek nekazaritzako ustiategien aholkularitzarako erakundeei buruzko abenduaren 26ko 272/2006 Dekretuan ezarritako baldintzen arabera aintzatetsita egon behar dute.

– Basogintzako ustiategiei aholkularitza ematen dieten basogintzako elkarteak laguntzaren onuradun izateko, Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederakundekoak izan behar dira, baso-kudeaketa iraunkorreko planak ezartzeko aholkularitza eskaintzeko akreditaturiko erakunde moduan.

3.– Erabateko aholkularitza eskaintzeko asmoz, EAEko esparruan zerbitzuak eskaintzen dituzten nekazaritzako ustiategien aholkularitzarako erakundeek beren aholkularitza-jarduera ondorengo gai hauetara zabaldu behar dute nahitaez:

– Kontseiluak irailaren 29an emandako 1782/2003/EE Erregelamenduko 4. artikuluak eta III. eranskinak azaltzen dituzten gaietan –hots, osasun publikoko, animalien eta landareen osasuneko, ingurumeneko eta animalien ongizateko gaietan– kudeaketako lege-betekizunetan hobekuntzak egiteko diagnosiak eta proposamenak. Xedapen horiek urtarrilaren 25eko 20/2005 Dekretuaren II. eranskinean ageri dira.

– Irailaren 29an Kontseiluak emandako 1782/2003 Erregelamenduko IV. eranskinean ezarritako esparruan oinarrituriko urtarrilaren 25eko 20/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutako nekazaritza eta basogintzako eta ingurumeneko baldintza onetan hobekuntzak egiteko diagnosiak eta proposamenak. Diagnostiko eta proposamen horiek lurrazalaren baldintza espezifikoetan arreta jarriko dute, eta aintzat hartuko dira klimaren eta lurraren baldintzak, dauden ustiapen-sistemak, lurren erabilera, laboreen txandaketa, nekazaritza-ustiapenaren praktikak eta ustiapen-egiturak. Baina nekazaritza-praktika onen erreferentzia-mailaren gainetik dauden nekazaritza-praktika onen neurriak eta ingurumen-neurriak daudenean, azken horiek beteko dira.

– Nekazari gazteak nekazaritzako jardueran hasteko proiektuen monitoretza eta tutoretza.

– Nekazaritza eta basogintzako ustiategietan laneko segurtasunari buruzko arauak (batasuneko legedian oinarriturik).

– Ustiategiko titularrek ordezkapenetarako pertsonak kontratatzeko aholkularitza.

– Ustiategiko ekoizpena hobetzeko aholkuak ematen dituen aholkularitza teknikoa, bai eta balorazioa egiteko adierazle partzialen eta bukaerako adierazleen ezarpena ematen duena ere.

– Aholkularitza ekonomikoa eta finantzarioa. Hauek sartuko dira aholkularitza horren barnean: balantzeak

que asesoren a las explotaciones forestales. Dichas entidades deberán cumplir los siguientes requisitos:

– Las entidades privadas de asesoramiento a las explotaciones agrarias, deberán estar reconocidas según las condiciones establecidas en el Decreto 272/2006, de 26 de diciembre, de entidades de asesoramiento a explotaciones agrarias.

– Las asociaciones de forestalistas que asesoren a las explotaciones forestales, para ser beneficiarias de la ayuda deberán pertenecer a la Confederación de Forestalistas de Euskadi, como entidad ya acreditada para prestar asesoramiento en la implantación de planes de gestión forestal sostenibles.

3.– Con objeto de ofrecer un asesoramiento integral, las entidades de asesoramiento a explotaciones agrarias que presten los servicios en el ámbito de la CAPV deberán extender su actividad de asesoramiento obligatoriamente a las siguientes materias:

– Diagnóstico y propuesta de ejecución de mejoras en materia de los requisitos legales de gestión, relativos a la salud pública, zoosanidad, fitosanidad, medio ambiente y bienestar de los animales a los que se refiere el artículo 4 y el anexo III del Reglamento (CE) n.º 1782/2003 del Consejo, de 29 de septiembre. Estas disposiciones se recogen en el anexo II del Decreto 20/2005, de 25 de enero.

– Diagnóstico y propuesta de ejecución de mejoras en materia de las buenas condiciones agrarias y medioambientales definidas en el anexo I del Decreto 20/2005, de 25 de enero, sobre la base del marco establecido en el anexo IV del Reglamento (CE) n.º 1782/2003 del Consejo, de 29 de septiembre, atendiendo a las características específicas de las superficies de que se trate, incluidas las condiciones climáticas y de suelo, los sistemas de explotación existentes, la utilización de las tierras, la rotación de los cultivos, las prácticas de explotación agraria y las estructuras de explotación. Ello se entenderá sin perjuicio de las normas que rigen las buenas prácticas agrarias y de las medidas agroambientales aplicadas que rebasen el nivel de referencia de las buenas prácticas agrarias.

– Monitorización y tutorización de proyectos de incorporación de jóvenes agricultores y agricultoras a la actividad agraria.

– Normas relativas a la seguridad laboral de las explotaciones agrarias basadas en la legislación comunitaria.

– Asesoramiento para la contratación de personal de sustitución por parte de los titulares de las explotaciones.

– Asesoramiento técnico que incluya recomendaciones para la mejora de la productividad de la explotación así como el establecimiento de indicadores parciales y finales para su valoración.

– Asesoramiento económico y financiero que incluya la elaboración de balances y cuentas de resultados,

eta emaitzen kontuak egitea, indize ekonomikoen interpretazioa, bideragarritasun-azterketak egitea, ekoizpen-kostuen analisiak eta kontabilitateko kudeaketa, oro har.

– Hauekin loturiko aholkularitza laborala, fiskala eta juridikoa: laneko kontratuak, nominak, likidazioak (Gizarte Segurantza eta PFEZ), BEZ, sozietateen gaineko zerga eta hirugarrenekin egindako eragiketak.

– Nekazaritza eta ingurumeneko kontratuetan aholkularitza jaso eta horiek lantzea.

Goiko atalean aipatutakoez gain, kudeaketa-, ordezte- eta aholkularitza-zerbitzu osoagoa eta integralagoa eskaintzeko, beste gai batzuk ere jorratu daitezke aholkularitzan.

4.– Aholkularitza-zerbitzuak emango dituzten erakundeek Kontseiluak irailaren 29an emandako 1782/2003 Erregelamenduko 15. artikuluan informazioa edo datu pertsonalak nahiz indibidualak ez dibulgatzeari buruz xedatutakoa bete behar dute. Informazio hori abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, datu pertsonalak babesteari buruzkoan, xedatutakoaren menpe dago.

5.– Laguntza prima zuzen bakarrean emango da, eta zerbitzuetakoren bat ezarri edo zabaldu ondorengo lehen bost urteetan gastu hauek estaliko ditu: ondasun inbentariagarrietan egindako inbertsioak (ez dira onartuko ondasun higiezinak erostea, eraikitzea edo hobetzea), prestakuntza-gastuak eta langile berriak kontratatzeagatik izandako gastuak.

Ondasun inbentariagarrietako inbertsioei eta prestakuntza-gastuei dagokienez, diruz lagun daitezkeen gastuen % 50era iritsi ahal izango da laguntza. Portzentaje hori 10 puntuko tarteetan txikituko da urtetik urtera hurrengo lau urteetan. Seigarren urtean laguntza desagertu egingo da.

Lanpostuak sortzeagatik ematen den dirulaguntzak aholkularitza-zerbitzuaren jardueraren lehen bost urteetan emango dira, eta urtesariak ezin dira soldaten kostuaren % 60 baino handiagoak izan. Laguntza urtero tarte beretan txikitzen joango da, eta seigarren urtean desagertu egingo da. Gazteak eta emakumeak kontratatzen dituztenek lehentasuna izango dute. Enplegua sortzeagatik laguntza jasotzeko, langile-kopuruan hazkunde neto bat egon behar da, aurreko hamabi hilabeteen batez bestekoarekin alderatuz.

Lanpostuak sortzeko laguntza 1998/2006 (EE) Erregelamenduaren araberako de minimis erregimenean emango da, eta horrek erakunde onuradunaren laguntza publikoa gehienez ere 200.000 eurora mugatuko du, hiru urtez behin.

Laguntzak jasoko dituzten erakundeek konpromisoa hartu behar dute laguntza bukatu eta, gutxienez, bost urtez, bulegoetan zerbitzua emateko eta lanpostuen okupazioari eusteko; hain zuzen, dirulaguntzak lortzeko bidea eman duten lanpostu horiei eusteko.

interpretación de índices económicos, elaboración de estudios de viabilidad, análisis de costes de producción y gestión contable en general.

– Asesoramiento laboral, fiscal y jurídico relacionado con la realización de contratos laborales, nóminas, liquidaciones a la Seguridad Social e IRPF, IVA, Impuesto de Sociedades y operaciones realizadas con terceras personas.

– Asesoramiento y elaboración de contratos agroambientales.

Además de las materias señaladas en este apartado, el asesoramiento podrá alcanzar otras con objeto de ofrecer un servicio aún más completo e integral de gestión, sustitución y asesoramiento.

4.– Las entidades que prestan servicios de asesoramiento, deberán cumplir lo dispuesto en el artículo 15 del Reglamento (CE) n.º 1782/2003 del Consejo, de 29 de septiembre, en relación a la prohibición de divulgar información, o datos de carácter personal o individual. En todo caso, esta información estará sujeta a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

5.– La ayuda consistirá en una prima directa para cubrir las inversiones en bienes inventariables (no se incluyen la adquisición, construcción o mejora de bienes inmuebles) gastos de formación y gastos de personal causados por nuevas contrataciones en los cinco primeros años desde la implantación o extensión de alguno de los servicios contemplados.

Por lo que se refiere a las inversiones en bienes inventariables y gastos de formación, la ayuda podrá alcanzar hasta el 50% de los gastos subvencionables. Este porcentaje disminuirá en tramos de 10 puntos cada año, a lo largo de los siguientes cuatro años, desapareciendo la ayuda al sexto año.

Por lo que respecta a las ayudas a la creación de puestos de trabajo, estas se concederán durante los cinco primeros años de actividad del servicio de asesoramiento sin que cada anualidad pueda superar el 60% de los costes salariales. La ayuda irá decreciendo anualmente en tramos iguales, desapareciendo la misma al sexto año. Tendrá un tratamiento prioritario la contratación de jóvenes y mujeres. El empleo creado, que pueda beneficiarse de la ayuda, debe representar un incremento neto del número de trabajadores en comparación con la media de los doce meses anteriores.

La ayuda a la creación de puestos de trabajo se concederán bajo el régimen de mínimis de conformidad con el Reglamento (CE) n.º 1998/2006, lo que limitará la ayuda pública por entidad beneficiaria a un máximo de 200.000 euros cada tres años.

Las entidades perceptoras de estas ayudas habrán de comprometerse a mantener el servicio en las oficinas y ocupados los puestos de trabajo objeto de aquellas, durante al menos cinco años contados desde la finalización de la ayuda.

***13. artikulua.–*** Nekazariek eta basogintzako langileek aholkularitza-zerbitzuak erabiltzeko laguntzak.

1.– Ustiategiko etekin ekonomiko eta ingurumeneko etekin orokorra hobetze aldera, laguntzak emango zaizkie borondatez aholkularitza-zerbitzuak erabiltzen dituzten nekazaritza eta basogintzako ustiategietako titularrei, betiere, hurrengo baldintzak beteta:

a) Nekazariek jasoko duten aholkularitzak honakoak jorratuko ditu, gutxienez:

– 1782/2003 Erregelamenduko 4 eta 5. artikuluek nahiz III eta IV. eranskinek ezarritako derrigorrezko kudeaketako betekizunak eta nekazaritza eta basogintzako eta ingurumeneko baldintza onak, eta horien ondorengo aldaketak. Baldintza horiek, EAErako, urtarrilaren 25eko 20/2005 Dekretuan jasorik daude.

– Laneko segurtasunari buruzko arauak, Batasuneko legedian oinarrriturikoak.

– Ustiategiaren bideragarritasun-analisia.

b) Nekazarientzako aholkularitza-zerbitzuak Eusko Jaurlaritzako NAESen 272/2006 Dekretuak ezarritako prozedurari jarraiki onartutako erakundeek emanikoak izango dira. Basogintzako langileei aholkularitza emateko zerbitzuak (basogintzakoak bakarrik diren ustiategiak) Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederakundeak emango ditu, lurraldeetako elkarteen bitartez edo haien erabateko partaidetza duten sozietate instrumentalen bitartez.

c) Aholkularitza-zerbitzuak emango dituzten erakundeek Kontseiluak irailaren 29an emandako 1782/2003 Erregelamenduko 15. artikuluan informazioa edo datu pertsonalak nahiz indibidualak ez dibulgatzeari buruz xedatutakoa bete behar dute. Informazio hori abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, datu pertsonalak babesteari buruzkoan, xedatutakoaren menpe dago.

d) Emandako aholkularitza-zerbitzuen eraginez sorturiko gastuak baimendutako erakunde aholku-emaileak faktura bidez zehaztu behar ditu. Fakturan argi azaldu behar dira kontzeptu guztiak eta ezin da, inola ere, zuzenean edo zeharka produktuen salmentarekin edo aholkularitza ez den beste zerbitzuren batekin loturiko kontzepturik azaldu.

2.– Nekazaritzako aholkularitzarako laguntzak eskuratzerakoan, hauek lehentasuna izango dute:

a) Irailaren 29ko 1782/2003/EE Erregelamenduko 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, ordainketa zuzenen bidez urtean 15.000 euro baino gehiago jasotzen dituzten ustiategietako titularrak.

b) Uztailaren 8ko 168/1997 Dekretuak lehentasunduntzat jotzen dituen ustiategietako titularrak. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Lehentasunezko Nekazaritzako Ustiategiak arautu eta EAEko lurralde historikoetako eta eskualdeetako gutxieneko laborantza-unitateak ezartzen ditu.

***Artículo 13.–*** Ayuda a la utilización de servicios de asesoramiento por parte de agricultores y silvicultores.

1.– Con la finalidad de mejorar el rendimiento económico y ambiental global de la explotación se concederán ayudas a los titulares de explotaciones agrarias y silvícolas que voluntariamente utilicen servicios de asesoramiento que cumplan las condiciones siguientes:

a) El asesoramiento a los agricultores incluirá como mínimo:

– Los requisitos de gestión obligatorios y las buenas condiciones agrarias y medioambientales que estipulan los artículos 4 y 5 y los anexos III y IV del Reglamento (CE) n.º 1782/2003, recogidos para el ámbito de la CAPV en el Decreto 20/2005 de 25 de enero.

– Las normas relativas a la seguridad laboral basadas en la legislación comunitaria.

– Análisis de la viabilidad de la explotación.

b) Los servicios de asesoramiento a los agricultores deberán ser ofrecidos por las entidades reconocidas según el procedimiento establecido en el Decreto 272/2006 del Dapa del Gobierno Vasco. Los servicios de asesoramiento a los silvicultores (explotaciones únicamente forestales) deberán ser prestados por la Confederación de Forestalistas de Euskadi, a través de sus asociaciones territoriales o a través de sociedades instrumentales enteramente participadas por ellas.

c) Las entidades que prestan servicios de asesoramiento, deberán cumplir lo dispuesto en el artículo 15 del Reglamento (CE) n.º 1782/2003 del Consejo, de 29 de septiembre, en relación a la prohibición de divulgar información, o datos de carácter personal o individual. En todo caso, esta información estará sujeta a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

d) Los costes derivados de los servicios de asesoramiento prestados, deberán detallarse mediante factura por la entidad de asesoramiento autorizada, reflejándose en la misma con claridad todos sus conceptos, sin contener en ningún caso conceptos ligados directa o indirectamente con la venta de productos u otros servicios ajenos al de asesoramiento.

2.– Tendrán prioridad en su acceso a estas ayudas de asesoramiento agrario:

a) Los titulares de explotaciones que reciban más de 15.000 euros al año en concepto de pagos directos, de acuerdo con lo establecido en el artículo 15 del Reglamento (CE) n.º 1782/2003, de 29 de septiembre.

b) Los titulares de explotaciones calificadas como prioritarias al amparo del Decreto 168/1997, de 8 de julio, por el que se regulan las Explotaciones Agrarias Prioritarias en la Comunidad Autónoma del País Vasco y se determinan las unidades mínimas de cultivo en los distintos Territorios Históricos y Comarcas de la CAPV.

c) Maiatzaren 17an Kontseiluak emandako 1257/1999/EE Erregelamenduaren arabera desfaboratuak diren zonaldeetan, Natura 2000ren zonaldeetan edo nekazaritza eta ingurumeneko ustiapen-kontratuan ageri diren beste zonalde kaltebera batzuetan dauden ustiategien titularrak.

d) Gazteak edo emakumeak diren ustiategi-titularrak, nekazaritza eta ingurumeneko konpromisoak hartu dituzten titularrak, elikagaien kalitate-programetan parte hartzen duten titularrak edo EAEko administrazioekin nekazaritza eta ingurumeneko ustiapen-kontratuak izenpetzen dituztenak.

e) Aurreko hiru urteetan 120.000 euro baino gehiagoko inbertsioak egin dituzten ustiategi-titularrak, edo hobetze-plan baten barruan, 60.000 euro baino gehiagoko inbertsioak egin dituzten titularrak. Inbertsio horiek Euskadiko nekazaritza-administrazioak finantzatu edo sustaturikoak izango dira.

f) Aintzatetsitako erakunde batekin, neurriaren helburuetan zehaztutako modalitateen artean, aholkularitza-modalitate bat baino gehiago kontratatzen dituzten ustiategi-titularrak.

3.– Basogintzako aholkularitzarako laguntzak eskuratzerakoan, hauek lehentasuna izango dute:

a) Baso-lurretan 20 ha jarrai edo 35 ha jarraigabe baino gehiago dituzten ustiategietako titularrak.

b) Maiatzaren 17an Kontseiluak emandako 1257/1999/EE Erregelamenduaren arabera desfaboratuak diren zonaldeetan, Natura 2000ren zonaldeetan edo nekazaritza eta ingurumeneko ustiapen-kontratuan ageri diren beste zonalde kaltebera batzuetan dauden ustiategien titularrak.

4.– Laguntza urteko prima zuzen batean emango da. Laguntzaren zenbatekoa ezin da zerbitzuak fakturaturiko urteko kostearen % 80 baino handiagoa izan, ez eta zerbitzu eta ustiategi bakoitzeko 1.500 euro baino gehiagokoa ere.

Laguntzak oinarrizko prima bat izango du, eta prima hori, gehienez, ustiategiko eta urteko, 1.000 eurokoa izango da. Ustiategia maiatzaren 17an Kontseiluak emandako 1257/1999/EE Erregelamenduaren arabera desfaboratuak diren zonaldeetan edota Natura 2000ren zonaldeetan kokaturik badago, prima hori % 20 haziko da, gehienez.

Prima horrek % 30eko areagotze osagarria jaso ahal izango du ustiategiak nekazaritza eta ingurumeneko kontratua sinatu badu Administrazioarekin, elikagaien kalitaterako programan parte hartzen badu edo Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plana sinatzen badu.

Oinarrizko prima gehi, hala dagokionean, azaldu berri ditugun gehikuntza osagarriak fakturatutako urteko kostearen % 80 baino handiagoa denean, laguntza fakturatutako urteko kostearen % 80ra mugatuko da.

c) Los titulares de explotaciones situadas en zonas desfavorecidas en los términos previstos en el Reglamento (CE) n.º 1257/1999 del Consejo, de 17 de mayo, en zonas de Natura 2000, o en otras zonas vulnerables contempladas en el contrato agroambiental de explotación.

d) Los titulares de explotaciones que tengan la condición de joven o mujer, que hayan asumido contratos agroambientales, participen en programas de calidad de los alimentos o suscriban contratos agroambientales de explotación con la Administración de la CAPV.

e) Los titulares de explotaciones que hayan realizado en los tres años precedentes inversiones auxiliadas o financiadas por la administración agraria vasca cuyo importe conjunto supere la cantidad de 120.000 euros o, si éstas están proyectadas dentro de un Plan de Mejora, superen los 60.000 euros.

f) Los titulares de explotaciones que contraten más de una modalidad de asesoramiento con una entidad reconocida entre las señaladas en los objetivos de la medida.

3.– Tendrán prioridad en su acceso a las ayudas de asesoramiento forestal:

a) Los titulares de explotaciones que superen 20 has continuas de bosque o 35 has discontinuas.

b) Los titulares de explotaciones situadas en zonas desfavorecidas en los términos previstos en el Reglamento (CE) n.º 1257/1999 del Consejo, de 17 de mayo, en zonas de Natura 2000, o en otras zonas vulnerables contempladas en el contrato agroambiental de explotación.

4.– La ayuda tendrá la forma de una prima directa anual. El importe de la ayuda no podrá ser superior al 80% del coste anual facturado por el servicio, ni superar los 1.500 euros por servicio y explotación.

La ayuda se calculará partiendo de una prima base que podrá alcanzar un máximo de hasta 1000 euros por explotación/año. Esta prima base podrá incrementarse un 20% si la explotación se halla en zonas desfavorecidas en los términos previstos en el Reglamento (CE) n.º 1257/1999 del Consejo, de 17 de mayo, y/o en zonas de Natura 2000.

La prima resultante podrá verse incrementada adicionalmente hasta un 30% si la explotación ha suscrito un contrato agroambiental de explotación con la Administración, participa en un programa de calidad de los alimentos, o suscribe un Plan de gestión forestal sostenible.

En el caso de que la prima base más, en su caso, los incrementos adicionales que le correspondan sea superior al 80% del coste anual facturado, la ayuda se limitará al 80% del coste facturado.

Kasuan kasuko espedientean onuraduna gaztea edo emakume nekazaria bada, lehentasuna izango dute horiek laguntza eskuratzerakoan.

***14. artikulua.***– Ur-baliabideak kudeatzeko laguntza.

1.– Ur-aurrezpenaren alde egiteko, laguntzak eman ahal izango dira hurrengo esku-hartzeetarako:

a) Ureztatze-lurrak hobetzea, Ureztatzaileen Elkarteetako hornitutako eta gainhornitutako azaleretan egiten dena. Modu horretan jarduerek ur-kontsumoa murriztuko dute eta kutsadura ere murriztuko dute Ureztatze Elkarteetako azpiegiturak hobetuz eta modernizatuz gero.

b) Ureztatze-lurrak finkatzea, eta horrela Ureztatzaileen Elkarteetako azpiegiturak hobetuko dira, gainhornitutako eremuak sortuz, eskaera gutxitzea lortuz eta horrela ur-baliabide osagarriak erabiltzen saihestuz; modu horretan, ur-baliabideek beste erabilpen batzuk izango dituzte, eta azken finean, ura aurreztuko da eta kutsadura ere gutxitu.

2.– Hauek izan daitezke laguntza hauen onuradunak:

a) Nekazaritzako Administrazio Autonomikoak, nekazaritzaren alorrean eskudun den sailak ordezkatuta, Arabako Foru Aldundiak nahiz beste erakunde publiko eta beste administrazio batzuk.

b) Ureztatzaile Elkarteak eta ureztatzeko eskubidea duten beste elkarte batzuk, lur ureztapenekin zerikusia dutenak.

3.– Hauexek dira laguntza jaso dezaketen jardun eta inbertsioetako batzuk:

– Dauden azpiegitura hidraulikoak konpontzea.

– Ponpaketa-, garraio- eta banaketa-sistemak aldatzea.

– Ura aplikatzeko sistema aldatzea.

– Drainatze-sarea hobetzea.

– Ura arautzeko, gordetzeko eta kontrolatzeko gaitasuna hobetzea.

– Uraren kontsumoa kontrolatzea. Kontrol-sistema bat ezartzea.

– Uraren kudeaketa hobetzea.

– Komunikazio-teknologiak ezartzea.

– Ur gehigarriak ematea.

– Arazketa-sistemetan jardutea. Garbitutako urak berriro erabiltzeko lanak.

– Ureztatze-sistemetarako instalazio elektrikoak ezartzea eta hobetzea.

Los expedientes en que el beneficiario de la ayuda sea joven o mujer agricultor/a tendrán carácter prioritario en la concesión de la misma.

***Artículo 14.***– Ayuda a la gestión de recursos hídricos.

1.– Con la finalidad de propiciar el ahorro hídrico se podrán conceder ayudas para la realización de las siguientes intervenciones:

a) Mejora de regadíos, que se realiza en las superficies de las Comunidades de Regantes que estén dotadas o sobredotadas, de tal forma que las actuaciones supongan un considerable ahorro de agua y una disminución de la contaminación, obtenidos con la mejora y modernización de las infraestructuras de las Comunidades de Regantes.

b) Consolidación de regadíos, que supone una mejora de las infraestructuras de la Comunidad de Regantes, realizándose en zonas infradotadas, consiguiéndose una disminución de la demanda y evitando así, la aportación de recursos hídricos adicionales, con lo que dichos recursos se pueden adscribir a otro uso, lo que, en definitiva, supone también un ahorro de agua y una disminución de la contaminación.

2.– Podrán ser personas beneficiarias de estas ayudas:

a) La Administración Agraria Autonómica, representada por el Departamento competente en materia agraria, la Diputación Foral de Álava, así como otros Entes Públicos u otras Administraciones.

b) Las Comunidades de Regantes y otras comunidades con derecho de riego, vinculadas al regadío.

3.– Las actuaciones e inversiones auxiliables incluirán, entre otras, las siguientes:

– Reparación de las estructuras hidráulicas existentes.

– Modificación del sistema de bombeo, transporte y distribución.

– Cambio del sistema de aplicación de agua.

– Mejora de la red de drenaje.

– Mejora de la capacidad de regulación, almacenamiento y control del agua.

– Control del consumo del agua. Establecimiento de sistemas de control.

– Mejora en la gestión del agua.

– Implantación de tecnologías de comunicaciones.

– Aportación de agua adicional.

– Actuaciones en sistemas de depuración. Obras de reutilización de aguas regeneradas.

– Implantación y mejora de las instalaciones eléctricas vinculadas a los sistemas de riego.

4.– Laguntza jaso dezaketen jardun eta inbertsioek ondorengo baldintza bete behar dituzte:

– Diruz lagun daitezkeen jarduerek EAEn indarrean dagoen ingurumen-araudia, Uraren Esparru Direktibaren orientabideak eta arroa kudeatzeko planak beteko dituzte kasu guztietan.

– Neurri horren garapenean, 5. artikuluan jasotako inbertsioei aplika dakizkien baldintza orokorrak aplikatuko dira.

– Ureztatu daitezkeen eremuetan jardutean kontuan hartuko da interes orokorra, eta eremu horiek barne hartuko dira indarrean dagoen Estatuko Ureztatze Planean eta/edo 287/2006 Errege Dekretuan, 2007-2013 programan zehar estatuan egiten diren araudietan edo EAEk zehaztutako jarduera-planetan.

– Diruz lagunduko dira soilik Arabako Lurralde Historikoan dauden ureztapen lurren azpiegituretarako inbertsioak.

– Inbertsioetarako, gutxienez, balioaren % 10eko ekarpen garbia eskatuko zaie Ureztatzaile Elkarteei eta/edo ureztatzeko eskubidea duten eta aipatu ureztapenei etekina ateratzen dieten beste erkidego batzuei ere.

– Ez dira barne hartuko ureztatu daitekeen azalera handitzeko inbertsioak edo aurretik zeuden ur-baliabideak handitzeko inbertsioak.

– Ez dira barne hartzen partzela barruetarako inbertsioak.

5.– Proiektuak aukeratzeko eta laguntzak eman eta zenbatesteko, honako lehentasun-irizpide hauek izango dira kontuan:

– Nork aurrezten duen ur gehien.

– Nork murrizten duen gehien ur-eskaera.

– Nork eragiten duen ureztatzaile gehienetan.

– Nor dagoen modernizatuen.

– Eremu horretako azpiegituren egungo egoera.

– Ezarritako laborantza-motak.

– Landatartasun-baldintzak.

6.– Lanak baliabide propioekin, EAEko enpresa publikoekin edo bestelakoekin gauzatu ahal izango dira, edo, bestela, hirugarren batzuekin kontratatu Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearekin bat etorriz.

7.– Laguntza diruz lagun daitezkeen kostuen % 90erainokoa izango da.

***15. artikulua.–*** Azpiegiturak hobetu eta garatzeko laguntzak.

1.– Gure ustiategietako ekoizpenaren aniztasuna eta lehiakortasuna bultzatzeko xedearekin nekazaritza eta basogintzako azpiegituren garapenaren eta hobekuntzaren bitartez, laguntzak eman ahal izango zaizkie jarraian

4.– Las actuaciones e inversiones auxiliables estarán sujetas a las siguientes condiciones:

– Las actuaciones subvencionables tendrán que cumplir en todos los casos la normativa ambiental vigente en la CAPV y las Orientaciones de la Directiva Marco del Agua y de los planes de gestión de cuenca.

– En el desarrollo de esta medida, se aplicarán las condiciones generales aplicables a las inversiones previstas en el artículo 5.

– Las actuaciones en una zona regable deberán contar con declaración de interés general, y estar incluida en el Plan Nacional de Regadíos vigente y/o en el Real Decreto 287/2006, en futuras normativas a nivel estatal que se aprueben durante el periodo 2007-2013 o en los planes de actuación definidos por la CAPV.

– Sólo serán subvencionables inversiones en infraestructuras de regadío implantadas en el Territorio Histórico de Álava.

– Las inversiones requerirán una aportación mínima neta del 10% de su valor por parte de las Comunidades de Regantes y/o otras comunidades con derechos de riego que se beneficien del regadío en cuestión.

– No se contemplarán las inversiones ligadas al incremento de la superficie regable o de las dotaciones de agua preexistentes.

– Quedan excluidas las inversiones en el interior de parcela.

5.– Para la selección de proyectos, concesión y cuantificación de las ayudas se atenderán a los siguientes criterios de prioridad:

– Mayor ahorro de agua producido.

– Mayor disminución de la demanda de agua originada.

– Mayor número de regantes afectados.

– Mayor grado de intensidad de la modernización.

– Situación actual de las infraestructuras de la zona.

– Clases de cultivos implantados.

– Condiciones de ruralidad.

6.– Las obras podrán ejecutarse a través de medios propios, de empresas públicas de la CAPV, u otras, o contratarlas con terceros de acuerdo con la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de contratos del Sector Público.

7.– La ayuda podrá alcanzar hasta el 90% de los costes subvencionables.

***Artículo 15.–*** Ayudas a la mejora y desarrollo de infraestructuras.

1.– Con la finalidad de potenciar la diversificación productiva y la competitividad de nuestras explotaciones a través del desarrollo y mejora de las infraestructuras agrarias y forestales, se podrán conceder ayudas a

datozen idatz-zatietan jasotako jarduerak eta inbertsio lagungarriak egiten dituztenei.

2.– Jarduera eta inbertsio lagungarri izango dira basoko pistak bezalako baso-azpiegiturak egitea eta 1698/2005 Erregelamenduko II. ardatzeko beste neurrietan jaso ez diren baso-jarduerak egitea nahiz nekazaritzaren sektoreari uztartutako azpiegiturak garatzea. Horien artean egongo lirateke, adibidez, landa-esparruko bideak, ureztapenari uztartutako bide-sarea, partzelak pilatzea eta erabilera komuneko zelaiak eta bazkarako lekuak hobetzea, toki-erakundeen lursail komunetan egiten direnean.

3.– Laguntza jaso dezaketen jardun eta inbertsioek ondorengo baldintza bete behar dituzte:

– Neurri horren garapenean, 5. artikuluan jasotako inbertsioei aplika dakizkien baldintza orokorrak aplikatuko dira.

– Inbertsioak nekazaritza eta basogintzako azalerak eskuratzeko izango dira, bai eta lurrak eta energia-hornidurak finkatzeko eta hobetzeko ere.

– Diruz lagunduko diren jarduerek bete egin behar dute, inolako salbuespenik gabe, EAEn indarrean dagoen ingurumen-araudia.

– Dirulaguntzaren xede diren lanak eta jarduerak garatzeko dokumentu teknikoek ingurumen-eragina zuzentzeko behar diren neurriak erantsiko dituzte.

4.– Laguntzak diruz lagun daitezkeen kostuen % 100 bitarte hartu ahal izango du, onuraduna ustiategiko titularra bada salbu. Kasu horretan, 8. artikuluan ahalbidetutako mugak aplikatuko dira (nekazaritzako ustiategiak modernizatzeko laguntzak).

***16. artikulua.***– Mendietan zailtasun naturalak orekatzera zuzendutako laguntzak.

1.– Mendialdeetarako laguntza osagarriek ondorengo helburuak betetzea ahalbidetuko dute:

– Nekazaritza eta basogintzako lurrak etengabe erabiliko dituztela ziurtatzea, eta, horrela, landa-komunitate bideragarria mantentzen laguntzea.

– Nekazaritza eta basogintzako sistema iraunkorrak mantentzea eta sustatzea, eta ingurumen-eskakizunei arreta berezia jartzea.

– Nekazariei konpentsazioa ematea, eremu horietako ekoizpena txikiagoa izateagatik errenta baxuagoa jasotzen dutelako.

2.– Laguntza hauen onuradun izango dira EAEn mendiko nekazaritzakoak bezala katalogaturiko zonaldeetan kokaturiko nekazaritzako ustiategien titularrak, pertsona fisikoak zein juridikoak izan, baldin eta 4. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen badituzte eta, gainera, hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

a) Ustiategiaren titularra izatea nagusiki.

quienes realicen las actuaciones e inversiones auxiliables previstas en los apartados siguientes.

2.– Serán actuaciones e inversiones auxiliables la realización de infraestructuras forestales tales como pistas forestales y otras actuaciones forestales no contempladas en otras medidas del eje II del Reglamento 1698/2005, así como otras infraestructuras ligadas al sector agrícola, tales como caminos rurales, red viaria vinculada al regadío, concentración parcelaria, y la mejora de praderas y pastizales de uso común realizados en terrenos comunes de entidades locales.

3.– Las actuaciones e inversiones auxiliables estarán sujetas a las siguientes condiciones:

– En el desarrollo de esta medida, se aplicarán las condiciones generales aplicables a las inversiones previstas en el artículo 5.

– Las inversiones deberán estar relacionadas con el acceso a las superficies agrarias y forestales, la consolidación y mejora de las tierras y el suministro de energía.

– Las actuaciones subvencionables tendrán que cumplir en todos los casos la normativa ambiental vigente en la CAPV.

– Los documentos técnicos para la ejecución de las obras y actividades objeto de subvención deberán incorporar, en su caso, las medidas necesarias para la corrección de impactos ambientales.

4.– La ayuda podrá alcanzar hasta el 100% de los costes subvencionables, excepto cuando el beneficiario sea el titular de explotación en cuyo caso se aplicarán los topes permitidos en el artículo 8 (modernización de explotaciones agrarias).

***Artículo 16.***– Ayudas destinadas a compensar las dificultades naturales en zonas de montaña.

1.– Las ayudas compensatorias a las zonas de montaña contribuirán a la consecución de los objetivos siguientes:

– Asegurar un uso continuado de las tierras agrarias y contribuir así al mantenimiento de una comunidad rural viable.

– Mantener y fomentar sistemas agrarios sostenibles con especial consideración a las exigencias medioambientales.

– Compensar a los agricultores por la disminución de renta que supone la menor productividad.

2.– Serán personas beneficiarias de estas ayudas los titulares de explotaciones agrarias situadas en las zonas catalogadas de agricultura de montaña de la CAPV, personas físicas o jurídicas, que cumplan los requisitos previstos en el artículo 4 y que, además, cumplan las siguientes condiciones:

a) Ser titular de la explotación a título principal.

b) Nekazaritzako azalera erabilgarritik gutxienez 2 hektarea ustiatzea.

c) Baldintzazkotasunaren derrigorrezko betekizunak betetzea.

d) Helbide fiskala ustiategia kokatzen den udalerrian bertan edo mugakide den eta mendiko zonalde gisa katalogaturik dagoen udalerri batean izatea eta haren titular izatea nekazaritzako kanpaina oso baten antzinatasunarekin gutxienez. Salbuespena izango da aldez aurretik zegoen ustiategi batekin jarraitzen duenaren kasua.

e) Hondatutako zonalde batean nekazaritzako jardunarekin jarraitzeko konpromisoa hartzea gutxienez lehenengo kalte-ordaina ordaintzen den datatik hasi eta hurrengo bost urteetan.

Hala ere, nekazaritzako ustiategiaren jabea kontratu horretatik aske gera daiteke hurrengo kasu hauetan:

– Nekazaritzako jarduerari utzi eta berak landutako lurrak ustiatzen jarduera nagusitzat nekazaritza dutenek jarraituko dutela ziurtatuta dagoenean.

– Ezinbestekoa denean.

– Erretiro gisa, pentsioren bat hartzen duenean.

3.– Laguntza osagarriak nekazaritzako ustiategiaren lur-hektareako emango dira. Eta gutxienez 25 euro eta gehienez 250 euro artean kokatuko da Nekazaritzako Azalera Erabilgarriko (NAE) hektarea bakoitzeko. Gehieneko kopurua 100 ha-koa izango da ustiategi bakoitzeko. Hainbat nekazarik edo abeltzainek batera erabiltzen badituzte azalerak larratzerako, bakoitzak erabiltzen duen lur-kopuruaren proportzioan emango zaie konpentsazio-ordaina.

4.– Aurreko idatz-zatian aurreikusitako mugaren barruan, laguntzaren zenbatekoa onuragarria izango da beti eta honako aldagai hauen arabera modulatuko da:

– Landutako nekazaritza eta basogintzako azalera.

– Ustiategiaren batez besteko kota.

– Ustiategitik zerbitzuen hiriguneetara arteko batez besteko distantzia.

– Ustiategiaren malda.

– Ustiategiaren abere-zama.

– Ustiategiaren mende dauden pertsonen kopurua.

5.– Dauden premien eta baliabideen arabera, onuradunak irizpide hauetako batzuk betetzeari lehentasuna eman ahal izango diote laguntzak kudeatzeko ardura duten agintariek, laguntzak banatzeko:

– Nekazari gaztea izatea.

– Emakume nekazaria izatea.

b) Explotar un mínimo de dos hectáreas de superficie agraria útil.

c) Cumplir los requisitos obligatorios de condicionalidad.

d) Tener el Domicilio fiscal en el mismo municipio donde esté ubicada la explotación o en un municipio colindante catalogado como zona de montaña y ser titular de la misma con una antigüedad mínima de una campaña agrícola completa, salvo que sea continuador de otra explotación preexistente.

e) Comprometerse a proseguir su actividad agrícola en una zona desfavorecida durante al menos los cinco años siguientes a la fecha en que se pague la primera indemnización.

No obstante, el titular de la explotación agraria puede quedar liberado de este contrato en los siguientes casos:

– Cuando cese en la actividad agraria y quede asegurada la continuidad de la explotación de las superficies cultivadas en manos de agricultores a título principal.

– En caso de fuerza mayor.

– Cuando perciba alguna pensión en concepto de jubilación.

3.– Las indemnizaciones compensatorias se concederán por hectárea de tierra de la explotación agraria. Y se situarán entre un mínimo de 25 euros y un máximo de 250 euros por hectárea de superficie agraria útil (SAU), con un límite máximo de 100 ha por explotación. En el caso de superficies utilizadas por varios agricultores o ganaderos de forma conjunta para destinarla al pastoreo, la indemnización compensatoria se concederá proporcionalmente a la utilización de la tierra por cada uno de ellos.

4.– Dentro de la banda prevista en el apartado anterior, el importe de la ayuda estará correlacionado positivamente y se modulará en función de las siguientes variables:

– Superficie agraria cultivada.

– Cota media de la explotación.

– Distancia media de la explotación a núcleos urbanos de servicios.

– Pendiente de la explotación.

– Carga ganadera de la explotación.

– Número de personas dependientes de la explotación.

5.– Asimismo, las autoridades responsables de la gestión de esta ayuda, en función de las necesidades y recursos disponibles, podrán priorizar la concesión de la misma conforme al cumplimiento de alguno de estos criterios por parte del beneficiario:

– Ser joven agricultor.

– Ser mujer agricultora.

– Nekazaritza eta ingurumeneko kontratuak sinatu izatea ingurumeneko ustiapen-kontratuaren esparruan.

***17. artikulua.***– Mendikoak ez diren eremuetan zailtasun naturalak orekatzera zuzendutako laguntzak.

1.– Laguntza horien onuradun izan daitezke hondatutako beste zonalde batzuk bezala mugatutako EAEko zonaldeetan eta 75/268/EEE Direktibarekin eta ondorengo aldarazpenekin bat etorriz berariazko mugak dituzten zonaldeetan kokaturiko nekazaritzako ustiategien titularrak.

2.– Laguntza hauen onuradun izateko, aurreko artikuluko 2. idatz-zatian mendiko zonaldeetako konpentsaziozko laguntzen onuradunentzako adierazitako betekizun eta baldintza berdinak bete behar dira. Edonola ere, aurreko artikuluetan mendiko zonaldeei egindako aipamenak hondatutako beste zonaldeei eta berariazko mugak dituzten zonaldeei buruzkoak direla ulertuko da.

3.– Konpentsazioko kalte-ordainak ustiategiko lur erabilgarriko nekazaritza-azalerako hektarea bakoitzeko emango dira, eta gutxienez 25 euroan eta gehienez 150 euroan kokatuko da kopurua nekazaritzako azalera erabilgarriko (NAE) hektarea bakoitzeko. Gehieneko kopurua 100 ha izango da ustiategi bakoitzeko. Hainbat nekazarik edo abeltzainek batera erabiltzen badituzte azalerak larratzerako, bakoitzak erabiltzen duen lur-kopuruaren proportzioan emango zaie konpentsazio-ordaina.

4.– Laguntzak kalkulatzeko eta lehentasunak ezartzeko, aurreko artikuluko 4 eta 5. idatz-zatietan aurreikusitako korrelazio, modulazio eta betekizun berdinak aplikatuko dira.

***18. artikulua.***– Nekazaritza eta ingurumeneko laguntzak.

1.– Nekazaritzako jarduerek sortzen dituzten edo sor ditzaketen ingurumen-arazoak konpontzen laguntzeko eta ingurunearekin oreka gordetzen duten ekoizpen-metodo zehatzak hobetzeko helburuarekin, horietako batzuk tradizionalak EAEn, nekazaritza eta ingurumenerako laguntzak emango zakizkie nekazaritzako ekoizleei eta lurraren kudeaketaren arduradun diren ekoizle-elkarteei, betiere, kasuan kasuko nekazaritza eta ingurumeneko kontratuak sinatuta.

2.– Laguntza horien onuradun izateko, hurrengo baldintzak bete behar dira:

a) Nekazaritza eta ingurumeneko kontratuek eskakizun handiagoak izango dituzte Estatuko eta Autonomia Erkidegoko legedian (17882/2003/EE Erregelamendua, 796/2004/EE Erregelamendua, abenduaren 23ko 2352/2004 Errege Dekretua, Eusko Jaurlaritzaren urtarrilaren 25eko 20/2005 Dekretua eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2005eko uztailaren 29ko Agindua) derrigorrez zehaztutako baldintzazkotasunaren eta ongarri eta izurrien aurkako produktuen erabileraren alorrean ezarritakoen aldean.

– Haber suscrito contratos agroambientales en el marco de un Contrato Ambiental de Explotación.

***Artículo 17.***– Ayudas destinadas a compensar las dificultades naturales en zonas distintas de las de montaña.

1.– Podrán ser personas beneficiarias de estas ayudas los titulares de explotaciones agrarias situadas en zonas de la CAPV delimitadas como otras zonas desfavorecidas y zonas con limitaciones específicas conforme a la Directiva 75/268/CEE y posteriores modificaciones.

2.– Para poder ser personas beneficiarias de estas ayudas se habrán de cumplir los mismos requisitos y condiciones que los previstos en el apartado 2 del artículo anterior para las personas beneficiarias de las ayudas compensatorias a zonas de montaña. En todo caso, las referencias contenidas en el artículo anterior a zonas de montaña habrán de entenderse hechas a otras zonas desfavorecidas y zonas con limitaciones específicas.

3.– Las indemnizaciones compensatorias se concederán por hectárea de de superficie agraria útil tierra de la explotación y se situarán entre un mínimo de 25 euros y un máximo de 150 euros por hectárea de superficie agraria útil (SAU), con un límite máximo de 100 ha por explotación. En el caso de superficies utilizadas por varios agricultores o ganaderos de forma conjunta para destinarla al pastoreo, la indemnización compensatoria se concederá proporcionalmente a la utilización de la tierra por cada uno de ellos.

4.– Para el cálculo y priorización de las ayudas, serán de aplicación las mismas correlaciones, modulaciones y requisitos previstos en los apartados 4 y 5 del artículo anterior.

***Artículo 18.***– Ayudas agroambientales.

1.– Con el objetivo de contribuir a la resolución de los problemas medioambientales que se generan o puedan generar por la actividad agraria y el de fomentar el mantenimiento y la mejora de determinados métodos de producción en equilibrio con el medio, algunos de ellos tradicionales en la CAPV, se concederán ayudas agroambientales a los productores agrarios y a las asociaciones de productores responsables de la gestión de la tierra que suscriban los correspondientes contratos agroambientales.

2.– Para poder ser beneficiario de estas ayudas se deberán cumplir las siguientes condiciones:

a) Los contratos agroambientales implicarán mayores exigencias que los requisitos mínimos obligatorios en materia de condicionalidad, de utilización de abonos y productos fitosanitarios y otros requisitos obligatorios establecidos en la legislación estatal y autonómica (Reglamento (CE) n.º 17882/2003, Reglamento (CE) n.º 796/2004, Real Decreto 2352/2004, de 23 diciembre, Decreto 20/2005, de 25 de enero del Gobierno Vasco y Orden de 29 de julio de 2005, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación).

b) Kontratuak 5 urterako sinatuko dira gutxienez.

Kontratua gauzatzeko garaian, kontratu bat eraldatzea eta programa honetan jasota dagoen beste kontraturen bat bihurtzea baimenduko da, baldin eta baldintza hauek betetzen baditu:

– eraldaketaren ondorioz, ingurumenerako onura argia lortzen bada;

– indarrean dagoen kontratua nabarmen finkatzen bada.

Halaber, nekazaritza eta ingurumeneko kontratuak indarrean dauden garaian egokitu ahal izango dira, baldin eta egokitzapena behar bezala justifikatuta badago, kontratuaren helburuak kontuan hartuta. Egokitzapena kontratua gauzatzeko epearen luzapena ere izan daiteke edo neurrietan zehaztutako beste motaren bateko egokitzapena.

c) Laguntza emateko sinatu den kontratua gauzatzeko aldian onuradunak ustiategi-aldaketa edo -transferentzia jasaten duenean, halabeharrezko arrazoiak agertzen direnean edo salbuespeneko inguruabarrak direnean, hari eragiten dioten xedapenak aplikatuko dira 1974/2006/EE Erregelamenduko 44, 45 eta 47. artikuluetan ezarritakoari jarraiki.

Bestalde, ezinbesteko kasutzat eta/edo ezohiko egoeratzat hartuko da administrazioaren osasun-jardueren eraginez laboreak errotik ateratzea eta/edo hondatzea.

d) Oro har, nekazaritza eta ingurumeneko kontratuak eta horien ondorio diren laguntzak elkarren artean konbinatu ahal izango dira, euren artean osagarriak eta koherenteak badira. Ondorio hauetarako, kontratuetako bakoitzerako dekretu honetan aurreikusitako beste kontratuekiko bateraezintasunak ezarriko dira.

Horrez gain, ingurumeneko kontratuek beste laguntza-neurri batzuetan jasotzen ez diren zerbitzu, kontratu edo betekizunak hartuko dituzte bere baitan; adibidez, merkatu-antolaketen edo konpentsazio-ordainen aldeko erregimenak. Hala egiten ez bada, nekazaritza eta ingurumeneko laguntzak ez dira gainerako laguntza-erregimen horiekin bateragarriak izango.

e) Kontratu-garaian antolatzen diren ikastaroetan eta prestakuntza-jardueretan parte hartzeko konpromisoa hartuko du onuradunak. Bertaratzea derrigorrezkoa izango da onuradunarentzat.

3.– Laguntza hauek jasotzeko sina daitezkeen nekazaritza eta ingurumeneko kontratuak hurrengoak dira:

– Nekazaritzako ustiategietako ongarritze-plana.

– Simaurrak eta mindak kudeatzeko plana eta ongarritze-plana, lurraldean errotutako abeltzaintza-ustiategietan.

– Landareen osasunerako arrazoizko tratamendua.

b) Los contratos se suscribirán por un periodo mínimo de 5 años.

Se autorizará que un contrato se transforme en otro de los contemplados en este Decreto durante su período de ejecución, siempre que se cumplan las siguientes condiciones:

– la transformación constituya un beneficio indiscutible para el medio ambiente;

– el contrato vigente se consolide de forma significativa.

Igualmente, se autorizará la adaptación de los contratos agroambientales durante el período en que estén vigentes, siempre que dicha adaptación esté debidamente justificada habida cuenta de los objetivos del contrato. La adaptación también podrá consistir en la prórroga del período de ejecución del contrato o en otro tipo de adaptaciones que deberán estar especificadas en las medidas correspondientes.

c) Cuando, durante el período de ejecución de un contrato contraído como condición para la concesión de una ayuda, el beneficiario se vea afectado por cambio o transferencia de explotación, casos de fuerza mayor o circunstancias excepcionales, se aplicarán las disposiciones que le afecten según lo establecido en los artículos 44, 45 y 47 del Reglamento (CE) 1974/2006.

Además se considerará causa de fuerza mayor y/o circunstancias excepcionales, el arranque y/o destrucción de cultivos por imperativo de actuaciones sanitarias de la Administración.

d) Con carácter general, los diferentes contratos agroambientales y las ayudas derivados de ellos podrán combinarse entre sí siempre que sean complementarios y coherentes entre sí. A estos efectos, para cada uno de los contratos se establecerán las incompatibilidades específicas respecto de otros contratos previstos en este Decreto.

Asimismo, los contratos medioambientales incluirán servicios, contratos o requisitos que no se contemplen en otras medidas de ayuda, como los regímenes de apoyo a las organizaciones de mercado o a las indemnizaciones compensatorias. En caso contrario, las ayudas agroambientales no serán compatibles con esos otros regímenes de ayudas.

e) El beneficiario se comprometerá a asistir, a lo largo de todo el período, a los cursos y actividades de formación que se determinen. La asistencia será obligatoria para el beneficiario.

3.– Los contratos agroambientales que pueden suscribirse para recibir estas ayudas son los siguientes:

– Plan de fertilización en explotaciones agrícolas.

– Plan de gestión de estiércoles y purines y de fertilización en explotaciones ganaderas con base territorial.

– Tratamiento fitosanitario razonado.

– Izurri eta gaitzen kontrol integratua.

– Lurraren babesa lehorreko labore estentsiboetan, udaberrian erein aurretik neguan tarteko labore bat sartuta.

– Lurraren babesa zurezko laboreetan, landare-estalkia jarrita.

– Ingurumenaren babesa utzitako lurretan edo landu gabeko lurretan, zuzendutako estalkia etarrita.

– Intereseko uzta-belardiak zaintzea.

– Mendiko larreen ustiapenaren kudeaketa.

– Bertako animalia-arrazak gal ez daitezen sustatzea.

– Biodibertsitateari eustea txandakako laborantzako lurretan.

– Fauna babestea txandakako laborantzako lurretan.

– Ur-ibilguak eta hezeguneak babestea, zeharretara belar-zerrendak jarrita.

– Paisaia hobetzea berroak mantentzeagatik.

– Paisaia hobetzea bestelako elementuak mantentzeagatik.

– Nekazaritzako ekoizpen ekologikoa sustatzea.

– Ekoizpen integratua.

– Bertako babarrunak landatzea (babarrun-alea).

– Erlezaintza erabiltzea eremu galkorrenetako biodibertsitatea hobetzeko.

– Kontratu horietako bakoitzerako berariazko garapen-betekizunak eta –xedapenak ezarriko dira, BKIP 2007-2013 delakoan ezarritakoarekin bat etorriz. Horiek laguntzak kudeatzen dituzten administrazioek jarriko dituzte.

4.– Laguntzak urtero emango dira. Laguntzek sinatutako kontratutik eratorritako kostu osagarriak eta diru-sarreren galerak estaliko dituzte (lortu gabeko irabazia). Horrez gain, neurriaren transakzio-kostuak ere ordainduko dituzte; hau da, egiten hasteak sortuko dituen gastuak, konpromisoa gauzatzeko kostuaren barruan zuzenean sartu ezin direnak.

Kasu hauetan ere igo ahal izango dira zenbatekoak (ez dituzte inoiz gaindituko dirulaguntza jaso dezaketen kostuak, ez eta onartutako gehieneko zenbatekoak ere):

– Neurriari zonalde berdin bateko nekazari-talde batek heltzen badio. Horrela, nekazaritza-ingurumeneko neurriak lurraldean eragin handiagoa izatea bultzatu nahi da.

– Natura 2000 Sarearen barruan sartuta dauden eta dirulaguntzak jaso ditzaketen nekazaritza-ingurumeneko jarduerei lotutako lur-sailak dituzten ustiategien kasuan.

– Control integrado de plagas y enfermedades.

– Protección del suelo en cultivos extensivos por implantación de un cultivo intermedio en invierno previo a siembra en primavera.

– Protección del suelo en cultivos leñosos por implantación de cubierta vegetal.

– Protección del medio ambiente en superficies de retirada o no cultivo mediante la implantación de una cubierta dirigida.

– Conservación de prados de siega de interés.

– Gestión del aprovechamiento de los pastos de montaña.

– Conservación de razas animales locales.

– Conservación de la biodiversidad en tierras de cultivo de rotación.

– Protección de la fauna en tierras de cultivo de rotación.

– Protección de los cauces de agua y las zonas húmedas mediante bandas enyerbadas.

– Mejora del paisaje por mantenimiento de setos.

– Mejora del paisaje por mantenimiento de otros elementos.

– Producción agraria ecológica.

– Producción integrada.

– Cultivo de poblaciones locales de alubia (judía grano).

– Apicultura para mejora de la biodiversidad en zonas frágiles.

– Para cada uno de estos contratos se establecerán requisitos y disposiciones de desarrollo específicas de conformidad con lo establecido en el PDRS 2007-20013 por parte de las administraciones gestoras de estas ayudas.

4.– Las ayudas se concederán anualmente. Las ayudas cubrirán los costes adicionales y las pérdidas de ingresos derivados del contrato suscrito (lucro cesante). Además, cubrirán también los costes de transacción de la medida, es decir, aquellos que entrañe el acceso a la realización de la misma y que no puedan imputarse directamente al coste de ejecución del contrato al que se refieren.

Los importes de las ayudas podrán incrementarse (sin superar en ningún caso los costes subvencionables ni los importes máximos permitidos), en los siguientes casos:

– Cuando se acojan a la medida un grupo de agricultores de una misma zona. De esta manera se pretende potenciar que una medida agroambiental tenga una mayor incidencia territorial.

– Para las explotaciones con parcelas ligadas a actuaciones agroambientales subvencionables localizadas dentro de la red Natura 2000.

Nolanahi ere, 1698/2005/EE Erregelamenduko eranskinean ezarritakoaren arabera, hauek dira dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak:

– Urteroko laborantzak: 600 euro / ha.

– Labore iraunkorrak: 900 euro / ha.

– Lurren beste zenbait erabilera: 450 euro / ha.

– Galzorian diren bertako arrazak: 200 euro ALUko.

III. KAPITULUA
KUDEAKETA, EBAZPENA ETA ORDAINKETA

1. ATALA
XEDAPEN KOMUNAK

***19. artikulua.–*** Laguntzen kudeaketa.

Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak organo kudeatzaileen bidez kudeatuko dira. Organo horiek laguntza bakoitza finantzatzen duten partaidetza kontuan hartuta finkatuko dira, dekretu honetako 3. artikuluan eta hurrengo ataletan xedatutakoarekin bat etorriz.

***20. artikulua.–*** Eskabideak eta akatsen ongitzea.

1.– Eskabideak laguntzak kudeatzen dituen organoari aurkeztu behar zaizkio, laguntza bakoitzerako ezartzen diren epe eta baldintzetan.

2.– Eskabidea jaso duen organoak akatsen bat edo zehaztasunik eza antzemanez gero, halaxe jakinaraziko dio eskatzaileari. Eskatzaileak 10 egun izango ditu akatsa ongitzeko. Behin epe hori igaro eta akatsa zuzenduta ez badago, onuradunak atzera egiten duela ulertuko da dagokion organoak ebazpena eman ondoren.

***21. artikulua.–*** Onuradunaren betebeharrak.

Edonola ere, dekretu honetan arautudako dirulaguntzen onuradunek, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 50.2. artikuluan ezarritako betebehar orokorrez gain eta Lurralde Historikoetako dirulaguntzak erregulatzen dituzten foru-arauek ezarritakoez gain, ondorengoak ere bete behar dituzte:

a) Emandako laguntza onartzea. Laguntza eman zaiela dioen jakinarazpena jasotzen duten egunetik aurrera, hamabost egunetan ez badiote berariaz eta idatziz laguntzari uko egiten, onartu egin dutela ulertuko du administrazioak.

b) Dirulaguntzari eman zaion xede horretan erabiltzea, eta, emateko ebazpenean, edo, hala badagokio, likidazio-ebazpenean ezarritako baldintzekin bat etorriz.

c) Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen

En todo caso, los importes máximos de las ayudas, de acuerdo con lo establecido en el anexo del Reglamento (CE) n.º 1698/2005 son los siguientes:

– Cultivos anuales: 600 euros / ha.

– Cultivos perennes: 900 euros / ha.

– Otras utilizaciones de las tierras: 450 euros / ha.

– Razas locales en peligro de extinción: 200 euros / ugm.

CAPÍTULO III
GESTIÓN, RESOLUCIÓN Y PAGO

SECCIÓN 1.ª
DISPOSICIONES COMUNES

***Artículo 19.–*** Gestión de las ayudas.

La gestión de las ayudas prevista en este Decreto corresponderá a los órganos gestores que para cada una de ellas se determine en función de su participación en la financiación, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 3 del presente Decreto y en las secciones siguientes.

***Artículo 20.–*** Solicitudes y subsanación de defectos.

1.– Las solicitudes deberán ser presentadas ante el órgano gestor de las ayudas en el plazo y condiciones que para cada una de las ayudas se señale.

2.– Si el órgano ante el cual se hubiera presentado la solicitud advirtiera en la misma algún defecto o inexactitud lo comunicará al solicitante quien dispondrá de un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación, transcurrido el cual sin haber procedido a la subsanación se le tendrá por desistido en su petición previa Resolución del órgano en cuestión.

***Artículo 21.–*** Obligaciones del Beneficiario.

Las personas beneficiarias de las subvenciones reguladas en el presente Decreto, deberán cumplir, en todo caso, además de las obligaciones establecidas con carácter general en el artículo 50.2 del Texto refundido de la Ley De Principios Ordenadores de La Hacienda General Del País Vasco y de las obligaciones establecidas con igual carácter por las diferentes normas forales reguladoras de las subvenciones en los Territorios Históricos, las siguientes:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días desde la fecha de recepción de la notificación de la concesión de la subvención el beneficiario no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el destino concreto para el se ha concedido y de conformidad con las condiciones establecidas en la Resolución de concesión o de liquidación, en su caso.

c) Facilitar a los Departamentos competentes de las Diputaciones Forales, al Departamento de Agricultura,

Euskal Epaitegiak edo Europar Batasuneko organo aginpidedunek, dekretu honetan adierazitako dirulaguntzei dagokienez, dituzten funtzioez baliatuta eskatzen dioten informazioa ematea.

***22. artikulua.***– Baldintzen aldaketak, laguntzen ordainketa eta ez-betetzeak.

1.– Laguntzak emateko orduan kontuan hartu ziren baldintzak aldatu egiten badira ezertan, baina, hori bai, laguntzen xedea bete egin bada hala ere, edo, beste dirulaguntza batzuk jaso dituela-eta, gehienez jaso zitekeen laguntza gainditu egiten bada, baliteke dirulaguntzak emateko ebazpena aldaraztea horrek. Ondorio horietarako, laguntza-erregimen bakoitzean eskumena duen organo kudeatzaileak dagokion aldaketa-ebazpena emango du; bertan, emandako dirulaguntzen zenbatekoak doituko dira.

2.– Laguntzen ordainketa laguntzak emateko izandako xedeak betetzen direla egiaztatzen denean egingo da, dekretu honetan bildutako berariazko neurri bakoitzerako edo foru-aldundiek egin beharreko garapen-arauetarako adieraz daitekeenaren kaltetan izan gabe. Horretarako, onuradunek organo kudeatzaile eskudunek eskatzen dizkieten egiaztagiriak aurkeztu behar dituzte.

3.– Onuradunek Dekretu honetan edo berau garatzeko diren foru-arauetan ezarritako betekizunak betetzen ez badira, eta laguntza-erregimen bakoitzerako ezar daitezkeen xedapen zehatzei kalterik egin gabe, onuradunak jasotako kopurua gehi aplikatzen diren legezko interesak itzuli behar ditu, 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duenak, 698/1991 Dekretuak eta foru-aldundiek batera finantzatzen dituzten laguntzei dagokienez aplikatu beharreko foru-arautegiak aurreikusten dutenarekin bat etorriz.

***23. artikulua.***– Ebazpenik eza eta errekurtsoak.

1.– Laguntza-erregimen bakoitzean aurreikusitako epeak amaituta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskabideak ezetsitzat joko dira, 4/1999 Legeak emandako idazkeran Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 44. artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz.

2.– Dekretu hau eta hortik sortzen diren egintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek, 4/1999 Legeak emandako idazkeran Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarritako moduan eta epean.

Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco, a la Oficina de Control Económico, al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y a los órganos competentes de la Unión Europea la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a este Decreto.

***Artículo 22.***– Alteraciones de condiciones, pago de las ayudas e incumplimientos.

1.– Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de las ayudas, siempre que se entienda cumplida el objeto de esta y, en su caso, la superación del límite máximo de la cuantía subvencionable por obtención concurrente de otras subvenciones, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de las subvenciones. A estos efectos, por el órgano gestor competente para cada uno de los regímenes de ayudas se dictará la oportuna Resolución de Modificación en la que se ajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

2.– El pago de las ayudas se realizará una vez acreditados el cumplimiento de las finalidades para las que se concedieron las ayudas, sin perjuicio de lo que pueda disponerse para cada una de las medidas específicas en este Decreto o en las normas de desarrollo que corresponden efectuar a las Diputaciones Forales. A estos efectos, las personas beneficiarias deberán presentar la documentación acreditativa que les sea requerida por los órganos gestores competentes.

3.– En caso de que las personas beneficiarias incumplan los requisitos establecidos en la Presente Decreto o en la normativa foral que lo desarrolle y sin perjuicio de las disposiciones específicas que pudieran ser establecidas para cada uno de los regímenes de ayuda, las personas beneficiarias vendrán obligados a reintegrar la cuantía percibida más los intereses legales que resulten de aplicación, de conformidad con lo previsto en el Decreto Legislativo 1/1997 por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, el Decreto 698/1991 y la normativa foral de aplicación en el caso de ayudas cofinanciadas por las Diputaciones Forales.

***Artículo 23.***– Falta de resolución y recursos.

1.– Transcurridos los plazos previstos en cada uno de los regímenes de ayuda sin haberse dictado y notificado Resolución expresa, las solicitudes se podrán entender desestimadas de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 30/1992 de Régimen jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común en la redacción dada por la Ley 4/1999.

2.– El presente Decreto y cuantos actos se deriven de él podrán ser impugnados por los interesados en el plazo y forma establecidos por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en la redacción dada por la Ley 4/1999.

2. ATALA
LGENFek ETA FORU ALDUNDIEK BATERA FINANTZATUTAKO LAGUNTZEN KUDEAKETA

***24. artikulua.–*** Organo kudeatzaileak.

1.– Ustiategiak edo ustiategiaren azaleraren zatirik handienak kokaleku duen, edo, bestela, lagundu beharreko jardun edo inbertsioa egingo den Lurralde Historikoko Foru Aldundiko sail eskudunari dagokio foru-aldundiek dekretu honetan aurreikusitakoari jarraiki ezartzen dituzten laguntzak kudeatzea.

2.– Xede horretarako, dagokion Foru Aldundiak dekretu hau garatzeko arauak argitaratuko ditu eta horietan, besteak beste, laguntzak kudeatzeari buruzko aurreikuspenak egingo dira; hots, eskabideak aurkezteko era eta epea, aurkeztu beharreko agiriak, laguntzak emateko prozedura, kontrolak eta ebazpena emateko nahiz laguntzak ordaintzeko epeak.

***25. artikulua.–*** Ebazpena eta ordainketa.

Bidezko kontrolak eta egiaztapenak egin ondoren, foru-organo eskudunek dagokion ebazpena emango dute. Ebazpen horren bidez, hala badagokio, laguntza emango dute, bakoitzak bere aurrekontuen kargura. Horrez gain, LGENFri dagozkion fondoen kargurako laguntzei heltzea proposatuko da, urriaren 3ko 194/2006 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-politika bateratuak dituen gastuen erakunde ordaintzailea eratu eta honen antolaketa eta funtzionamendua ezartzen dituenak, ezartzen duenarekin bat etorriz.

3. ATALA
NEKAZARI GAZTEEK USTIATEGIAK JARTZEKO LAGUNTZAREN KUDEAKETA

***26. artikulua.–*** Organo kudeatzaileak.

1.– Nekazari gazteen instalaziorako laguntzaren organo kudeatzaileak foru-aldundiak izango dira 9. artikuluan jasotako laguntzari dagokionez. Aldiz, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza izango da 10. artikuluan aurreikusitako laguntza kudeatuko duena. Aurrekoaren kaltetan izan gabe, prozedura berdina izango da bi laguntzen kasuan, eta kudeaketa Nekazari Gazteen Bulegoen bitartez eta Nekazari Gazteentzako Koordinazio Zerbitzuaren bitartez egingo da.

2.– Dekretu hau aplikatzeko foru-aldundien mendeko eskualdeetako nekazaritza-bulegoak izango dira Nekazari Gaztearen Bulegoak. Halaber, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren mendekoa den «Itsasmendikoi SA» erakundeak egingo du Nekazari Gaztearen Koordinazio Zerbitzuaren lana. Ondorioz, aipatu erakundeak izango dira laguntza horiek kudeatzeko erakunde laguntzaileak.

SECCIÓN 2.ª
GESTIÓN DE LAS AYUDAS COFINANCIADAS POR EL FEADER Y LAS DIPUTACIONES FORALES

***Artículo 24.–*** Órganos gestores.

1.– La gestión de las ayudas que en base a lo previsto en el presente Decreto sean establecidas por las Diputaciones Forales corresponderá a los Departamentos competentes de las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos donde se ubique la explotación o la mayor parte de su superficie o dónde se realice la actuación o inversión auxiliable.

2.– A tal fin, las Diputaciones Forales correspondientes publicarán las normas de desarrollo del presente Decreto en las que se especificarán, entre otras, las previsiones relativas a la gestión de las ayudas, tales como forma y plazo de presentación de solicitudes, documentación a presentar, procedimiento de concesión, controles y plazos para la resolución y pago.

***Artículo 25.–*** Resolución y pago.

Una vez efectuadas los controles y comprobaciones pertinentes, los órganos forales competentes dictarán la Resolución que corresponda. En dicha resolución se concederá, si procede, la ayuda con cargo a sus respectivos presupuestos y se propondrá el acceso a la ayuda con cargo a los fondos del FEADER, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 194/2006, de 3 de octubre, por el que se constituye el Organismo Pagador de los gastos correspondientes a la política agraria común en la Comunidad Autónoma del País Vasco y se establece su organización y funcionamiento.

SECCIÓN 3.ª
GESTIÓN DE LA AYUDA A LA INSTALACIÓN DE JÓVENES AGRICULTORES

***Artículo 26.–*** Órganos gestores.

1.– Los órganos gestores de la ayuda a la instalación de jóvenes agricultores serán las Diputaciones Forales por lo que respecta a la ayuda prevista en el artículo 9 y la Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco por lo que respecta a la ayuda prevista en el artículo 10. No obstante lo anterior, el procedimiento será el mismo para ambas ayudas y la gestión se realizará a través de las Oficinas del Joven Agricultor y del Servicio de Coordinación del Joven Agricultor.

2.– A efectos de la aplicación del presente Decreto, las Oficinas Comarcales Agrarias dependientes de las Diputaciones Forales actuarán como Oficinas del Joven Agricultor. Asimismo la entidad dependiente del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación «Itsasmendikoi, S.A.» actuará como Servicio de Coordinación del Joven Agricultor. En consecuencia, dichas entidades serán entidades colaboradoras para la gestión de estas ayudas.

***27. artikulua.–*** Emate-prozedura.

1.– Bi laguntzen eskabidea Nekazari Gaztearen Bulegoen arduraduna den Foru Erakundean aurkeztu behar izango da dekretu honen 24.2 artikuluan ezarritako garapen-araudian foru-aldundiek zehazten dituzten epe, leku eta moduan. Halaber, dekretu honetako lehenengo xedapen iragankorrean 2008rako ezarritakoaren kaltetan izan gabe, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuak Agindua egingo du eta horren bitartez publizitatea emango zaie aurrekontu-ekitaldi bakoitzean eman beharreko laguntzen bolumen osoari. Hori dekretu honetako 10. artikuluaren babesean egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura.

2.– Laguntzaren eskaera kasuan kasuko Nekazari Gaztearen Bulegoak ebaluatu eta monitorizatuko du; honek proiektuaren bideragarritasuna eta nekazari gaztearen gaitasuna egiaztatu behar izango ditu, foru-aldundiek eta Nekazari Gaztearen Koordinazio Zerbitzuak horretarako ezartzen dituzten prozedurekin bat etorriz.

3.– Aurreko idatz-zatian aipatzen den ebaluazioa egin ondoren, balorazio-batzordeak dekretu honen 9. artikuluko 4. idatz-zatian jasotako irizpideen arabera baloratuko du laguntza-eskabidea. Batzorde hori honako kideek osatuko dute Lurralde Historikoetako bakoitzean:

– Foru Aldundiko Nekazaritza diputatuak, edo hark ordezkari gisa aukeratzen duenak, lehendakari gisa.

– Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariak, edo berak eskuordetzen duen pertsonak.

– Foru Aldundi bakoitzeko teknikari bana, Nekazari Gaztearen Bulegoko kasuan kasuko arduradunek izendatutakoak.

– Nekazari Gaztearen Koordinazio Zerbitzuko teknikari bat, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariak izendatutakoa.

Balorazio-batzordean emakumeek eta gizonek ordezkaritza orekatua izango dute, gizonen eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.6 artikuluaren ildotik.

4.– Espedientea ikusita eta Balorazio Batzordearen proposamenaren ondotik, foru-erakundeek kasuan kasuko ebazpena emango dute dekretu honetako 9. artikuluan aurreikusitako laguntzari dagokionez eta 25.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariak kasuan kasuko ebazpena egingo du 10. artikuluan jasotako laguntzari dagokionez. Gehienez ere 6 hilabeteko epea izango du hori egiteko, eskaera aurkezten denetik aurrera.

Epe horretan ebazpen-jakinarazpenik jaso ezean norberaren eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 44. artikuluan xedatutakoarekin bat.

***Artículo 27.–*** Procedimiento de concesión.

1.– La solicitud de ambas ayudas se presentarán conjuntamente ante el Órgano Foral responsable de las Oficinas del Joven Agricultor en los plazos, lugares y forma que determinen las Diputaciones Forales en la normativa de desarrollo prevista en el artículo 24.2 del presente Decreto. Asimismo, y sin perjuicio de lo dispuesto en la Disposición Transitoria Primera de este Decreto para el año 2008, mediante Orden del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación se dará publicidad al volumen total de las ayudas a conceder dentro de cada ejercicio presupuestario en virtud del artículo 10 del presente Decreto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– La solicitud de ayuda será evaluada y monitorizada por la Oficina del Joven Agricultor correspondiente, que deberá certificar la viabilidad del proyecto de incorporación y la capacitación del joven agricultor, de conformidad con el procedimiento que a estos efectos establezcan las Diputaciones Forales y el Servicio de Coordinación del Joven Agricultor.

3.– Una vez producida la evaluación a la que se refiere el apartado anterior, la solicitud de ayuda será valorada en base a los criterios contenidos en el apartado 4 del artículo 9 del Presente decreto por una Comisión de Valoración que en cada uno de los Territorios Históricos estará compuesta por los siguientes miembros:

– El Diputado de Agricultura de la Diputación Foral o persona en quien delegue, quien la presidirá.

– El Director de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco o persona en quien delegue.

– Un técnico de la Diputación Foral, nombrados por los responsables de las Oficina del Joven Agricultor.

– Un técnico del Servicio de Coordinación del Joven Agricultor nombrados por el Director de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

Esta Comisión de valoración tendrá una representación equilibrada de mujeres y hombres en el sentido del artículo 20.6 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de hombres y mujeres.

4.– A la vista del expediente y de la proposición de la Comisión de Valoración, los Órganos Forales dictarán la resolución que corresponda respecto de la ayuda prevista en el artículo 9 de este Decreto, de conformidad con lo previsto en el artículo 25.1, y el Director de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco dictará la Resolución que corresponda respecto de la ayuda prevista en el artículo 10, en el plazo máximo de 6 meses desde la presentación de la solicitud.

Transcurrido este plazo sin haberse dictado y notificado Resolución expresa, las solicitudes se podrán entender desestimadas de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

5.– Eskabideak banaka eta ordenari jarraiki ebatziko dira, behar bezala betetzen diren heinean, eta egin beharreko kontrol eta egiaztapen guztiak egin ondoren.

Aipatutako laguntzak ordaintzeko aurrekontuan kreditu egoki eta nahikorik ez badago, laguntzak ukatuko dira, eta laguntza berririk ere ez da emango. Beraz, dekretu hau indarrean dagoen bitartean ekonomia-ekitaldiren batean laguntza-bide honetan aurreikusitako laguntzetarako jarritako kreditua agortuz gero, Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den administrazio-ebazpena emango du eta bertan, aipatutako kreditua agortu den data adieraziko du.

Aurrekontu-ekitaldi batean ekitaldi horretan aurrekontu-kredituekin bete ezin daitezkeen eta diruz lagun daitezkeen jarduerei buruzko laguntza-eskaerak egongo balira, horiek hurrengo ekitaldiko aurrekontu-kredituen barruan kokatu ahal izango dira, eskaera berriro aurkeztu beharrik izan gabe. Horretarako, beharrezkoa izango da adierazitako jarduerek laguntzak lortu ahal izateko dekretu honetan ezarritako betekizunak betetzea. Halakoetan, ebazpen-prozesuan dagoen denbora-lehentasuna errespetatze aldera, eskabidean adierazitako eguna hartuko da kontuan.

7.– Laguntza bi zatitan ordainduko da. Onuradunak laguntzaren bi heren jasoko du emakidaren ondorengo hiru hilabeteko epean. Geratzen den herena urtebetetik hiru urtera bitarteko kontrol-aldiaren amaieran eskuratuko da laguntza ematen denetik aurrera, behin laguntza emateko aintzat hartu ziren gastu eta inbertsioak egiteko justifikazioa aurkeztuta eta, betiere, azken urtean geratzen den azkeneko marjina osoa ez bada 6 EDU baino txikiagoa NLUko (7.200 euro NLUko).

8.– Halaber, eta orokorrean 21. eta 22. artikuluetan xedatutakoaren kaltetan izan gabe, onuradunak jasotako laguntza osoa itzuli behar izango du azken urtean geratzen den azkeneko marjina osoa ez bada 6 EDU baino handiagoa NLUko (7.200 euro NLUko) edo 9.3 artikuluan ezarritako nekazaritzako jardueraren dedikazio-maila lortzen ez badu.

4. ATALA

KUDEAKETA, ORDEZKAPEN ETA AHOLKULARITZA ZERBITZUAK EZARTZEKO LAGUNTZAREN KUDEAKETA

***28. artikulua.***– Organo kudeatzailea.

Dekretu honen 12. artikuluan aurreikusitako kudeaketa-, ordezkapen- eta aholkularitza-zerbitzuen ezarpenerako aurreikusitako laguntzak kudeatzeaz arduratuko den organoa Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza izango da.

***29. artikulua.***– Emate-prozedura.

1.– Dekretu honetako bigarren xedapen iragankorrean 2008rako xedatutakoaren kaltetan izan gabe,

5.– Las solicitudes se irán resolviendo individual y ordenadamente conforme vayan quedando debidamente cumplimentadas, una vez realizados los controles y comprobaciones pertinentes.

Se denegará la concesión de las ayudas en el caso en el que el Presupuesto al que deban imputarse las citadas ayudas carezca de crédito adecuado y suficiente para la finalidad pretendida, suspendiéndose la concesión de nuevas ayudas. Por todo ello, mientras se encuentre vigente el presente Decreto si en un ejercicio económico se agota el crédito consignado para la concesión de las ayudas contempladas en esta línea, al objeto de dar publicidad a esta circunstancia por el Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero del Gobierno Vasco se emitirá Resolución administrativa en la que se señalará la fecha en la que se ha producido el agotamiento del citado crédito, publicándose la misma en el Boletín Oficial del País Vasco.

Si en un ejercicio presupuestario hubiere solicitudes de ayudas relativas a actuaciones subvencionables que no puedan ser atendidas con los créditos presupuestarios de dicho ejercicio, podrán imputarse a los créditos presupuestarios del ejercicio posterior, sin necesidad de volver a presentar la solicitud, siempre que las citadas actuaciones cumplan con los requisitos establecidos en el presente Decreto para la obtención de las ayudas. En tal caso, a los efectos de conservar la prelación temporal en el proceso resolutorio, se conservará la fecha de la solicitud.

7.– El pago de la ayuda se realizará en dos fases. El beneficiario recibirá dos tercios de la ayuda en el plazo de tres meses desde su concesión. El tercio restante al final de un periodo de monitorización de uno a tres años desde la concesión de la ayuda, una vez se aporte la justificación de la realización de los gastos e inversiones que se tuvieron en cuenta para conceder la ayuda y siempre que el margen bruto final resultante el último año no sea inferior a 6 UDE / UTA (7.200 euros / UTA).

8.– Asimismo, y sin perjuicio de lo dispuesto con carácter general en los artículos 21 y 22, el beneficiario deberá devolver el total de la ayuda percibida en caso de que el margen bruto final resultante el último año no supere un mínimo de 6 UDE / UTA (7.200 euros / UTA) o no alcance el grado de dedicación a la actividad agraria previsto en el artículo 9.3.

SECCIÓN 4.ª

GESTIÓN DE LA AYUDA A LA IMPLANTACIÓN DE SERVICIOS DE GESTIÓN, SUSTITUCIÓN Y ASESORAMIENTO

***Artículo 28.***– Órgano gestor.

El órgano gestor de las ayudas para la implantación de servicios de gestión, sustitución y asesoramiento prevista en el artículo 12 del presente Decreto será la Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

***Artículo 29.***– Procedimiento de concesión.

1.– Sin perjuicio de lo dispuesto en la Disposición Transitoria Segunda de este Decreto para el año 2008,

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuak dekretu honetako 12. artikuluan adierazitako laguntzen deialdia egingo du. Deialdi horretan ekitaldi bakoitzerako eskabideak aurkezteko epeak ezarriko dira, eta dekretu honen arabera nola LGNEFen kontura hala Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura eman beharreko dirulaguntzen guztizko kopurua ezagutaraziko da.

2.– Eskabideari honako agiriok erantsiko zaizkio:

– Nekazaritzako ustiategiei aholkularitza emateko onartuta egotearen ziurtagiria, edo.

– Basoen kudeaketa-plan iraunkorrak ezartzeko aholkularitzarako erakunde onetsi gisa Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederakundekoa dela egiaztatzen duen dokumentazioaren kopia.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik daudela egiaztatzen duten agiriak.

– Jasotako beste dirulaguntza batzuen zerrenda, dekretu honetako 7. artikuluan zehaztutako bateragarritasun-irizpideak eta 12.5 artikuluan adierazitako gutxienekoen erregimenaren mugak betetzen direla egiaztatzeko.

– Eskabidea aurkeztu aurreko urtean aholkularitza-zerbitzuak kontratatu dituzten nekazaritza eta basogintzako ustiategien zerrenda.

– Eskainitako zerbitzu-motak.

– Ondasun inbentariagarrietako inbertsioen, prestakuntza-gastuen eta diruz lagun daitezkeen langile-gastuen zerrenda, dekretu honetako 12.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Eskaera aurkezten den urtean zehar egitekoa izango da.

3.– Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariak ebazpena emango du bi hilabeteko epean, epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Epe horretan ebazpen-jakinarazpenik jaso ezean norberaren eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan xedatutakoarekin bat.

4.– Dirulaguntza horiek finantzatzeari begira jarritako aurrekontu-kredituak lagungarri diren eskabide guztiei erantzuteko adina ez badira, gazteen eta emakumeen kontratazio-gastuei erantzungo zaie lehentasunez. Gainerako gastuei dagokienez, dirulaguntzaren kopurua erakunde eskatzaileek emandako aholkularitza-zerbitzuen arabera hainbanatuko da.

mediante Orden del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, se procederá a realizar la convocatoria de las ayudas previstas en el artículo 12 del presente Decreto. En dicha convocatoria se establecerán los plazos de presentación de solicitudes para cada uno de los ejercicios y se dará a conocer del volumen total de las ayudas a conceder dentro de cada ejercicio presupuestario en virtud del presente Decreto con cargo al FEADER y a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– A la solicitud de ayuda se acompañará la siguiente documentación:

– Copia de la documentación que acredite la obtención del reconocimiento como entidad de asesoramiento a explotaciones agrarias, o

– Copia de de la documentación acreditativa de pertenencia a la Confederación de Forestalistas de Euskadi como entidad acreditada para prestar asesoramiento en la implantación de planes de gestión forestal sostenible.

– Certificación de cumplimiento de las obligaciones fiscales y de seguridad social.

– Relación de otras subvenciones recibidas al efecto de verificar el cumplimiento de los criterios de compatibilidad previstos en el artículo 7 del presente decreto y de las limitaciones del régimen de mínimis al que se hace referencia en el artículo 12.5.

– Relación de explotaciones agrarias o forestales con las que se ha contratado servicios de asesoramiento durante el año anterior al de la presentación de la solicitud.

– Tipos de servicios prestados.

– Relación de las inversiones en bienes inventariables, gastos de personal y gastos de personal subvencionables de conformidad con lo supuesto en el artículo 12.4 de este Decreto a efectuar durante el año en el que se presenta la solicitud.

3.– Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, el Director de Agricultura y Ganadería dictará Resolución en el plazo de dos meses desde la finalización de dicho plazo. Transcurrido este plazo sin haberse dictado y notificado Resolución expresa, las solicitudes se podrán entender desestimadas de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– En caso de que los créditos presupuestarios asignados para la financiación de estas ayudas no sean suficientes para cubrir todas las solicitudes con derecho a ayuda se atenderá con carácter prioritario los gastos por contratación de jóvenes y mujeres. Por los que respecta al resto de los gastos solicitados, se prorrateará el importe de la ayuda en proporción a los servicios de asesoramiento prestados por las entidades solicitantes.

5.– Laguntza emateko arrazoi izan diren inbertsioak, prestakuntza-gastuak edota eginiko kontratazioen gastuak agiri bidez justifikatu ondoren ordainduko zaizkie laguntzak erakunde onuradunei. Justifikazio hori gehienez ere bi hilabeteko epean egin behar da, laguntza ematen duen ebazpenaren jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

***Lehenengoa.***– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura dekretu honetako 10. artikuluan aurreikusitako nekazari gazteen instalazioari osagarri zaion laguntza nazionala finantzatzeko eman beharreko baliabideen bolumen osoa 2008ko aurrekontu-ekitaldian 1.100.000 eurokoa izango da gehienez ere.

***Bigarrena.***– 2008an, 12. artikuluan aurreikusitako kudeaketa-, ordezkapen- eta aholkularitza-zerbitzuen ezarpenerako laguntzen eskaerak Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari aurkeztuko zaizkio. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da dekretu hau argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera. 2008ko aurrekontu-ekitaldian laguntza hauek finantzatzeko eman beharreko baliabideen guztizko bolumena gehienez ere 390.625 eurokoa izango da; horietatik 140.625 euro LGENFren kargura izango dira eta 250.000 euro, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura.

Halaber, gehieneko kopuru horretatik % 90 (351.562 euro) nekazaritzako ustiategiei kudeaketa-, ordezkapen- eta aholkularitza-zerbitzuak ematen dituzten erakundeei zuzendurikoak izango dira, eta % 10 (39.063 euro) basogintzako ustiategiei zuzendutako kudeaketa-, ordezkapen- eta aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen dituztenei. Hala eta guztiz ere, gaindikinak edo erakunde-ildo edo –mota hauetako bakoitzerako erabat aplikatzen ez diren kopuruak beste erakunde-ildo edo –mota batzuei zuzendu ahal izango zaizkie.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

***Lehenengoa.***– Indarrik gabe uzten dira Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako ustiategietarako, landa-eremuen garapen eta egokitzapenerako, eta basogintzarako laguntzak arautzen dituen uztailaren 28ko 243/2004 Dekretuaren I, II, III eta VI. kapituluak. Aurrekoaren kaltetan izan gabe, kapitulu horien babesean emandako laguntzak horietan xedatutakoaren arabera arautzen jarraituko dute amaitu bitarte.

***Bigarrena.***– Indarrik gabe geratzen da 89/2004 Dekretua, maiatzaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza eta ingurumeneko neurri eta konpromisoak hartzeko laguntzei buruzkoa. Aurrekoaren kaltetan izan gabe, horien babesean emandako laguntzak horietan xedatutakoaren arabera arautzen jarraituko dute amaitu bitarte.

5.– El pago de las ayudas a las entidades beneficiarias se efectuará previa justificación documental de las inversiones realizadas, de los gastos de formación o de las contrataciones efectuadas por las que se concedió la ayuda. Dicha justificación deberá hacerse en un plazo máximo de dos meses desde la notificación de la Resolución por la que se concede la ayuda.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

***Primera.***– El volumen total de recursos a conceder con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ejercicio presupuestario de 2008 para financiar la ayuda nacional complementaria a la instalación de jóvenes agricultores prevista en el artículo 10 del presente decreto ascenderá a un máximo de 1.100.000 euros.

***Segunda.***– En el año 2008, la solicitud de las ayudas para la implantación de servicios de gestión, sustitución y asesoramiento prevista en el artículo 12 del presente Decreto se presentará ante la Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la publicación del presente Decreto. El volumen total de recursos a conceder en el ejercicio presupuestario de 2008 para financiar estas ayudas ascenderá a un máximo de 390.625 euros, de los cuales 140.625 euros serán con cargo al FEADER y 250.000 euros con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

A su vez, de dicho total máximo un 90% (351.562 euros) irá destinado a las entidades que presten servicios de gestión, sustitución y asesoramiento a las explotaciones agrarias y un 10 % (39.063 euros) irá destinado a las entidades que presten servicios de gestión, sustitución y asesoramiento a las explotaciones forestales. No obstante, los excedentes o las cantidades que no sean aplicadas totalmente para cada una de estas líneas o tipo de entidades podrán ser destinados a la otra línea o tipo de entidad.

DISPOSICIONES DEROGATORIAS

***Primera.***– Quedan derogados los capítulos I, II, III y VI del el Decreto 243/2004, de 30 de noviembre, sobre ayudas a las explotaciones agrarias, al desarrollo y adaptación de las zonas rurales y a la silvicultura de la Comunidad Autónoma del País Vasco. No obstante lo anterior, las ayudas concedidas al amparo de dichos capítulos seguirán rigiéndose por lo dispuesto en ellos hasta su finalización.

***Segunda.***– Queda derogado el Decreto 89/2004, de 18 de mayo, sobre ayudas para el establecimiento de medidas y compromisos agroambientales en la Comunidad Autónoma del País Vasco. No obstante lo anterior, las ayudas concedidas a su amparo seguirán rigiéndose por lo dispuesto en él hasta su finalización.

AMAIERAKO XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburua ahalmentzen da agindu bidez eta bere eskumenen eremuan, dekretu hau aplikatu ahal izateko beharrezko xedapen osagarriak emateko, baita xedapen horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Plana dela-eta Erkidegoaren arautegian edo erabakietan gerta daitezkeen aldaketetara egokitzeko ere.

Zehazki, honakoak arautu ahal izango dira agindu bidez: laguntzen zenbatekoak (betiere, erregelamenduetan edo Erkidegoko erabakietan ezarritako mugak gainditzen ez badira) eta eskabideak aurkezteko epeak.

***Bigarrena.***– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko uztailaren 8an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Se faculta al Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación para dictar, mediante Orden y dentro del ámbito de su competencia, las disposiciones complementarias para la aplicación del presente Decreto y su adaptación a las modificaciones que se produzcan en la normativa comunitaria o en las decisiones comunitarias respecto del Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Asimismo y en particular, podrá ser objeto de regulación mediante Orden la modificación de los importes de las ayudas, siempre que se mantengan dentro de los límites establecidos por la reglamentación o por las decisiones comunitarias, y los plazos de presentación de solicitudes.

***Segunda.***– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de julio de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

**OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

**4681**

AGINDUA, 2008ko uztailaren 21ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiko idazkari titularra kargutik kentzeko eta izendatzeko dena.

Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegia sortu eta antolatzeko urtarrilaren 24ko 14/1983 Dekretuaren xedapen iragankor bakarrak ahalmena ematen dio Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari, agindu bidez, Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiko idazkari titularra izendatzeko.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

**4681**

ORDEN de 21 de julio de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, de cese y designación de Secretario titular del Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegia / Tribunal Económico-Administrativo de Euskadi.

La Disposición Transitoria Única del Decreto 14/1983, de 24 de enero, sobre creación y organización del Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegia / Tribunal Económico-Administrativo de Euskadi, establece la potestad del Consejero de Hacienda y Administración Pública para la designación, mediante Orden, del Secretario titular del Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegia / Tribunal Económico-Administrativo de Euskadi.